

ARGIA



J.J. IRIZAR

«Alkanfor usaina dago Gipuzkoako Diputazio barruan, ez fruta freskoarena»

NAZIOARTEA

Lionel Jospin, Edouard Balladurri atera zaion arantza arrosa

INAUTERIAK

Gure herrietako usadio zaharrak berreskuratze ahaleginetan

NATURA

Eguraldia erotu egin al da azken urteotan?



MEHO KODRO

«BOSNIA LEZIOA DA MUNDUARENTZAT»



DICCIONARIO VASCO-ESPAÑOL-FRANCÉS

POR EL PRESBITERO

RESURRECCIÓN MARÍA DE AZKUE

PROFESOR DE VASCUENCE EN EL INSTITUTO DE BILBAO

MIEMBRO DE LA SOCIEDAD LINGÜÍSTICA DE PARÍS, DOCTOR EN TEOLOGÍA

DICTIONNAIRE BASQUE-ESPAGNOL-FRANÇAIS

APIAZA (S, Alth.), renóncula, vulg. botón de oro: *renoncule, vulg. bouton d'or*. (Bot.).

APIKA (G-t), apike (G-and-zeg, R), acaso, *peut-être*.

APIKA (E.H.). Proiektu, antolaketa eta zerbitzu informatikoak.

APIKAK iadanik euskararentzako hainbat lanabes eta tresna garatua du.

Horien artean:

- Silaba-banaketarako automatikak, euskararako eta gaztelaniarako. "C"z garatua eta OASIS (1985) eta THEOS (1990) sistema eragileetan ezarria,

ZERUKO ARGIA S.A.L. argialetxean. 1994ean Macintosharako.

- Hitz-indexaziorako sistema parametrizagarria (hizkuntzaren arabera)

euskara eta gaztelaniarako, probabilitate handieneko aleatorizazio-

metodoan oinarritua. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Aldizkari

Ofizialerako. Atzitze masiboko prozesua eta berorren analisi

automatikoari dagokiona "C"z (XENIX) garatu dira (1987-88).

- EHUko Informatika Fakultatean garatutako XUXEN ortografiazuzentzailearen proiektuaren bultzatzaile izan da eta horretaraku zenbait algoritmo implementatu: hitzen indexazioa eta berorien berreskuratzea hurbilpen lexikografikoaren metodoaz. DOSen eta UNIXen ezarria (1988-90).

- Euskarazko indexaziorako iragazle morfologikoa. Baionako IUTrekin lankidetzan. "C"z (UNIX) inplementatua (1991-92).

APIKAREN esku artean egun garatzen ari diren proiektuak:

- AWR hitz-ezagutzailea: gaztelania, frantsesa, euskara eta katalanerako. Hizkuntza natural bakoitzaren analisi morfologikoan oinarritua.

- Aplikazioak: * Autozuzenketa multikausala.

* Testu-indexazio eta -berreskurapena, hizkuntza-domeinuak mugatuz.

The logo for APIKA features the word 'APIKA' in a bold, stylized font. The letter 'I' is replaced by a vertical bar with a small orange square above it. The letter 'A' at the end has a green triangle on its right side.

PROIEKTU, ANTOLAKETA ETA ZERBITZU
INFORMATIKOAK

DONOSTIA: Ametzagaña, 19 - beheka - Tel (943) 28 33 99 - 28 36 78 / Faxa: 2746 00

URRUÑA: Xalbardin Baita - Tel: (07.33) 59 47 60 00 - Faxa: 47 60 01



BARCELONA: Aragó kalea, 63 - beheka 1 - Tel: (93) 226 49 24

- 6. Politika kronika. PELLO ZUBIRIA.
- 8. Jose Julian Irizar, Gipuzkoako Diputaziorako EAren hautagaia. «Fruitu freskoena baino gehiago alkanfor usaina dago Diputazioan». PELLO ZUBIRIA.
- 12. Astean zehar. XABIER LETONA.
- 14. Jospinen hautaketarekin PSF lehendakartzarako lasterketa buruan. Balladur tristearen arantza sozialista. XABIER LETONA.
- 18. Esteban Uribesalgo, Import Arrasateko gerentea. «Estatu mailako kirol etxerik handiena gara». XABIER LETONA.
- 20. Euskal Herrian Inauterien isilarazitako tradizioa berreskuratze bidean. PATXI SARRIEGI
- 24. Europako uholdeek eta Espainia hegoaldeko lehorteen klima aldaketa iragartzen dute. Eguraldia erotzen ari ote zaigu? JOXERRA AIZPURUA.
- 28. Meho Kodro: «Bosniakoaren ostean, munduak lezioa ikasi duen itxaropena dut.». JON ODRIOZOLA.
- 34. Kultura kronika. J.J. PETRIKORENA.
- 37. Hilaren 24an hasiko da Korrika Kulturala. Kultura Korrika dator. MYRIAM GARTZIA.
- 40. Felix Maraña, Bermingham argitaletxeko partaidea: «Ohizko argitaletxeetatik urrun, erakundeei laguntzeko gaude». MAITE ARTOLA.
- 43. EITBk «Kantuz Goraintzi» lehiaketa plazaratu du. Gizon-emakumeak kantari irrati-telebistako plazan. J.J. PETRIKORENA.
- 46. Kultura agenda.
- 48. Argitalpenak.
- 50. Aukeran. AINHOA GERRA.
- 56. Denborapasa.
- 58. Euskara, naziogintzarako oinarri. JOSEBA ALVAREZ.




INAUTERIAK:Urteko festa nagusienetakoa ospatzen da egunotan Euskal Herriko hainbat herri eta hiritan. Hauen artean, nonnahi aurki daitezke, herrietan batez ere, inauteri zahar tradizionalak berreskuratze saioak, diktaduraren garaian isildutakoak hain zuzen ere. Hirietan, aldiz, espektakulu bihurtuta ageri dira./20

MEHO KODRO:Mostarretik Donostira, eta Errealarekin futbol zelai frankotik barrena bere aurkezpen txartela, golak, edonon zabaltzera. Ahots suabe eta kolore berdea gogoko duen aurrelari zorrotz eta gizon garai hau, zaletuek oso gogoko dute eta Errealak ez du inolaz ere eskuartean duen altxor hau uzteko asmorik. Hala eta guztiz, bada kezkerik Mehoren buruan. Bere aberria, Bosnia-Herzegovina gatazka ia amai ezin batean dago eta Mostarretik igortzen dizkieten berriak antsiz irensten ditu./28



KORRIKA KULTURALA: AEK-k antolaturik, aurtengo Korrika kultura ekitaldiez gainzka dator. Otsailaren 24an abiatuko da Korrika Kulturala deitu dena Bilbon eta Euskal Herrian zehar, musika, antzerkia, bertsolaritza eta artearen harian mamituko da. /37



ARGIA



ASTERO ETXEAN

ARGIAKO HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ

- ✕ ARGIA etxean hartzeak abantaila guztiak ditu.
- ✕ Zenbaki guztiak jasoko dituzu, kalean baino % 20 merkeago.
- ✕ Euskal Kulturaren Urtekaria etxera iritsiko zaizu.
- ✕ ARGIAzaleen elkarteko partaide izango zara.
- ✕ ARGIAren eskaintza berezietan parte hartu ahal izango duzu.

ORAIN ARGIAKO HARPIDEDUN EGINEZ GERO
HAUETAKO KONPAKTO, BIDEO EDO LIBURU BAT
ESKURATUKO DUZU

DOHAINIK



BARNE KANTA

KD



BIDEOA



TXIMELETAK SABELEAN
ANDONI EGAÑA



MANHATTAN
EDORTA JIMENEZ



MANOL / KARLOS GIMENEZ

HARPIDETZA TXARTELA

☎ (943) 37 15 45

FAXA: (943) 36 10 48

IZENA _____ 1. DEITURA _____
 2. DEITURA _____ HELBIDEA _____
 TFNOA _____ HERRIA _____
 POSTA KODEA _____ HERRIALDEA _____
 BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____
 SUKURTSAL HELBIDEA _____ SUKURTSAL ZKIA. _____
 KONTU KORRONTEA/LIBRETA _____
 Entitatea Entitatea K.D Kontu zenbakia

**HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne)**

Hego Euskal Herria

11.600 pzta

Ipar Euskal Herria

685 libera

Espainia 11.600 pzta

Beste Atzerriak

15.100 pzta

Airez 23.850 pzta

ARGIA: Zirkuitu ibilbidea 15

LASARTE-ORIA 20160

IRAKUR- LEAK MINTZO

Berdugoa biktimarena eginez

BELDURRA omen dago bertsolaritzan ere, dio Xabier Euzkitzek azkenego ARGIAN. Xabierrek ematen dien babesarekin (ze komunikabideen babesik gabe ezinezkoa litzateke) polizi mota guztiek, militarrek, GAL, beste botere inguruko taldeek, langabeziak, nagusien mehatxuak, etorkizun ezak, batzuk errez eta azkar aberastu nahiak eta abar luze batzuk sortzen duten beldurra ez du sentitzen Xabierrek.

Kritikaren beldurra sentitzen du. Bai baitaki ez dela edozein 'berriemaile'. Intoxikatzailea eta gainera abertzale eta tolerante bezala azaldu nahi. Euskaraz eta bertsolaria, ze hobe sinesgarritasuna emateko komunikabide ustel bati. Sarasuak zioena, euskaraz gezurra hobeto tragatu arazten dela.

Nik duela 32 urte sentitu nian benetakoko beldurra, *nagusiak (PNVkoa) Gobernadore Zibilari salaketa* egingo zioela esan zidanean langileen eskubideak eskatzeagatik.

Azkeneko aldiz, orain dela urte t'erdi hik emandako informatibo batez ederki justifikatutako *razzia* bat Ibarran egin zutenean, ehundakak sentitu zuten bezalaxe. 32 urteren buruan hamaika aldiz pasa diat beste 15 edo 20 milak 'demokrazian' atxilotuak eta beste milaka familiarteko, lagunak eta abar *sentitzen duten beldurra, benetakoko beldurra*.

Hik benetakoko beldurra sentitzen dukenean ez duk esango beldurra dagoen-

nik (ze herri honetako %90ek benetako askatasun arnasa hartuko duelako), baizik engainatua eta behartua sentitu hintzela eta barkazioa eskatuko duk egingako guztiagatik.

Azkeneko *razzian* sentitu eta *ikusi* genuen beldurra nola izan zen jakin nahi baduk, gonbidatzen haut nere etxera eta esango diat.

JOKIN ARANALDE
IBARRA (GIPUZKOA)

Atxarte

EGUN hauetan, Bilboko Entzutegi Pro-bintzialean, Abadiñoko PNV eta EAko alkate eta zinegotziak epaitzen ari dira, legez kontrako erabakia hartzeagatik, hau da, ustezko prebarikazio delitu batzuegatik, Udaleko aholkulari juridikoak erabakia legez kontrakoa zela ohartarazi zituen arren.

Atxarteko konponbidea behin eta berriz galerazi duen alkatea justiziaren menpe jartzeak langileen arazo soziala konponduko duen eta ingurugiroa errespetuz tratatuko duen hitzarmena aurrera ateratzeko aukera ematen du.

Dagoeneko hitzartuta dagoen proiektua oztopatzen zutenak ordain dezatela guztioi (langile, ekologista,

herrikide eta abarrei) egin diguten kaltea, eta lagunetik kutunkeria bazter baten utziz hitzartutakoa bete dezaten agintari zentzudunek, Atxarteko 'arazo' behin betikoz konpon dezagun. Ingurugiroak ezezik gure ondorengoek ere eskertuko digute.

INMA UNZUETA
DURANGO (BIZKAIA)

OHARRA

Sail hau interesgarri litekeen edozein gairi buruz, ARGIAko irakurleak adierazi nahi duena idatziz jasotzeko txoko irekia da. Gutunak, ahal dela, ez du folio erditik gora izango eta bertan, igorlearen izen-deiturak azalduko dira. Gutun hauek ARGIA, Zirkuitu Iblbidea 1 eta 2 pabilioiak, 20160 Lasarte-Oria helbidera bidali behar dira.


JABEA: ZERUKO ARGIA, S.A.L.
LEHENDAKARIA: Joxe Mari Irazusta.
ZUZENDARIA: Pello Zubiria.

HELBIDEAK

GIPUZKOA: Zirkuitu ibilbidea, 1 eta 2 pabilioiak. 20160 Lasarte-Oria.
Tlf: 37 15 45. Faxa: 36 10 48.
BIZKAIA: Zabalburu 2, 1. ezkerre. 48003 Bilbo.
Tlf: 410 34 34. Faxa: 410 37 15.
NAFARROA: Iratxeko Monastegia 70, 3. ezkerre. 31011 Iruñea.
Tlf: 17 80 78. Faxa: 17 80 77.
IPARRALDEA: Harrobiko Etxea, 64122 Urruña.
Fax-Tlf : 47 17 10


LEGE GORDAILUA: NA 80-1963.
ISSN: 0213-909X.
BATZORDE PAREKIDEA:
72562 E.

INPRIMATEGIA ETA FOTOMEKANIKA:
Antza, S.A.L.



kutxa fundazioa
fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Diputazioa
Kultura eta Turismo Departamendua



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren
laguntza jaso du

Nor gogoratzen da Argalaz?

TRINTXERPEKO kaleetan dabil berriro Joseba Eizagirre, hamasei urte preso egin ondoren. Kale, mendi eta itsasorik ikusi gabe igaro dituen urte luze horiez kontatu dituenen artean bada bata bereziki latza: deteniturik komisaldegian zegoela «Argala»-ren heriotzaren berri ematen zuten egunkariak erakutsi zizkiotela. Denbora. Gogoan al duzue noiz hil zuten Jose Migel Beñaran? Ordudanik egon da espetxean Eizagirre. Eta dago, beste hainbat.

Felipe Gonzalezek abisatu zuen Madrillgo azken eztabaida nagusian berak GAL suntsitu egin zuela, sozialistak gobernuan sartu baino askoz lehenagotik zetorrela GAL, beste izenekin. Noizbait esana dugu Amedo eta Dominguezen memoria freskatu zenetik berbizitutako afera hau kontrako sua

izatekotan, Felipe Gonzalez gerta zitekeela operazio horretako sugai. Ardanza lehendakariak berak ez al du antzeko zerbait sujeritu, Felipe Gonzalez GAL afera konpondu arte agintean utzi behar zaiola adieraztean? Orain Ferraz kaleko egoitzan erabakia dute kontrolpeko leherketa bat izan behar badu, kristo guztiak nozitu behar dituela astinduak. Eta erredurak.

BARRIONUEVO eta Corcuera Ferraz kaleko egoitzan eskaini zuten beren prentsaurrekoa, PSOEn kaseran. Agintari ohizat adina buru sozia-

listatzat presentatzeko. Panikoa nabari baita sozialisten artean. Errudun bila dabilta. Baltasar Garzonen kanpaina ez da gaurkoa, eta ez da bihar bazkaldondoan bukatuko: ez da epaile ona. begira zer egin zuen Necora operazioan eta Al Kasser-ekin, emakume kontu bat dela eta koxkabiloetatik harapatuta omen dago... Bellochen kontrakoari ekin zaio, bera izan dela ustez kontrolatuta zeukan operazio bat martxan ipini eta eskuetatik alde egiten utzi duen Rasputin merke bat, eta abar. Erruetatik ihesi ere hasi da jendea. Alfonso Guerraren inguruetan zabaldu

Miguel Castells abokatuak aspaldi esana —«beldur naiz alderdien arteko akordio batez estaliko ote duten GAL afera»— hurbiltzen ari dela nabari da.

Itoizko urtegia eraikitzeko burutzen diren obrak gelditzea eskatuz bildu ziren milaka pertsona Iruñean igandean egindako manifestaldian. Presak eragiten dituen kalte ekologikoez gain, Ebro ibaiaren adarretako uren kudeaketa arrazoinik gabekoa dela eta Nafarroako urak beste lurraldetara eraman nahi dituztela salatu zuten antolatzaileek. Kanpaina barruan, hurrengo deialdia martxoaren 11rako da. (Arg.: Oskar Montero).



da «edo ez zekiela edo erabaki zen lekuan kontrako botoa eman zuela».

Rafael Verak —sozialista bera ere— esandakoen artean bada bat aski enigmatikoa: «Posible da ni espexera joatea ezagutu behar nuen zerbaiten berririk izan ez dudalako». Zer eman nahi ote zuen aditzera? Edo —alderantziz esango dizut, uler dezazun— dakizkienak isiltzeko prest dagoela abisatzzen ari da lagunei. Edo operazioaren kontrola bere esku ez zegoela ari da sujeritzen. Honetan datza arazoaren gakoetako bat: PSOEren gobernuak bakarrik antolatu ezin zuena PSOEk bakarrik behar al du ordaindu? Eta zima-ur usaintsu honen zipriztinak CE-SID, Guardia Civil, UCD eta kristo guztiarenganaino zabaltzeko mehatxua hedatu da. Argalaren hilketaz mintzatu beharko dugu berriro.

ARZALLUZEK dio GAL lurperatzeko alderdien arteko akordio handi bat ez dela beharrezkoa, baina eskunik gaizki egiten duela Gonzalez hainbeste estutzean. Narcis Serrarekin egon berria zen eta zerbait jakingo zuen. Julio Anguitak Espainia borroka handi baten bezperatan dagoela iragarri du. ABC egunkariak PSOE gehiegi estutzearen ondorioz azkenean IU sendotu eta berriro 1931ko egoera —Frente Popular versus CEDA— gerta litekeela. Sistema bera arriskuan balitz bezala.


Miguel Castells abokatuak aspaldi esana —«beldur naiz bi alderdien arteko akordio batez estaliko ote duten GAL»— hurbiltzen ari dela nabari da. Behar bada hori eskatuko dute espainolek, bai ETaren kontra fabrikatu zaizkien heroiak kalean nahiago lituzketelako, bai eztrandak egitura gehiegi pitzatu ditzakeelako. Baina frustrazio gogorra sortuko luke Euskal Herrian, eta luzarako utziko 26 hilotzez osatutako arantza sartuta. Kataluniako botuemaileek —hori dateke gure artean hainbeste laudoriotutako «seny» edo zuhurtasun katalana— baimentzen diote CiUri. Baina oso bestelako fruituak emango lizkioke EAJri.

PELLO ZUBIRIA

G O R D E T Z E K O A K

EA KANPORA GELDITUKO EHU ETA KONTUEN EPAITEGITIK

Eusko Alkartasunak senadore bat eskuratzeagatik PPrekin tratua egin zuenetik, Jaurlaritza osatzeko hiruko hitzarmenean espreski lotuak ez zeuden erabakietan kanpoan lagatzen dute EAJ eta PSEk. Euskal Herriko Unibertsitateko Kontseiluan zortzi postuetatik bost bien artean banatuko dituzte, eta Kontuen Euskal Epaitegian diren zazpietatik sei ere bai. GAL Legebiltzarrean ikertzeko batzorde bat osatzeko proposamena berriro IU eta HBk aurkezten dutenerako EA «bigunago» egon dadin.



MARTXELO OTAMENDIAREN TARTEA

EZKER ABERTZALEA ETA KOMUNIKABIDEAK

Egurretan

Ezker abertzalearen eta komunikabide askoren arteko harreman gora behe-ratsuak tesi mardula egiteko adina ematen du, baina kasu honetan ere segun zeinek egiten duen tesia, edo egunotako irudia erabilia, Urbieta kaleko segun zein espaloietan dagoen tesigilea oso bestelakoak izango dira ondorioak.

Ez da kontu berria. Ezker abertzalearen aurka edozer idatz daiteke, errigorrik txikiena ez izanda ere. Ikusi besterik ez dago, Gipuzkoako prentsaren aita-pontek salatu berri duen bezala, KAS osatzen omen dutenen zerrendan zenbat martziانو dagoen. Ajuria Eneko Paktuak sortu duen terminologia faltsu eta manikeistaren jabe (alderdi demokratiko Vs. alderdi ez demokratiko, adibiderik lotsagarriena jartzeagatik) egin dira komunikabide asko eta asko helburu bakar batekin: ezker abertzaleari egurra ematea. Ezker abertzaleak ere behin baino gehiagotan egin ditu komunikabideak aztoratzeko merituak.

Bidegurutze horretan ezker abertzaleak bi aterabide ditu. Etengabeko konfrontaziozko jarrera, alegia, egurrari egur handiagorekin erantzutea, bat ere pasatzen ez uztea, ezker abertzalea/

komunikabideak edo komunikabideak /ezker abertzalea gatazka areagotzea eta, profesionalki lokaztuta eta desprestigiatuta dauden kazetari inpresentable batzuk gizartearen zati handi baten idolo eta martiri bihurtzea. Ezker abertzalekoak ez diren kazetari askori entzun diet egunotan, mehatxuen bidez lortuko den ondorio bakarra hori izango dela, ondoan nahi ez dituzten kazetarien alde irten behar izatea.

Bigarren aukerak, luzeagoa baina eraginkorragoa, lan handiagoa emango du. Ezker abertzalearen ingurukoek duten disziplinatua fama praktikan jarritz gero, ale gutxiago salduko lituzkete egunkari batzuk eta beste horrenbesteko jaitsiera izango lukete audientzian zenbait albistegik. Baina besterik diote datuek, zenbat eta egur handiagoa jaso orduan eta gehiago kontsumitzen du egurtuak egurgilea. Ate asko itxita, eta irekita dauden asko gor aurkituko dituen arren, ezker abertzaleak ezin du harremanik hautsi komunikabide horiekin. Hizketan segitu behar du, kosta ala kosta. Beti esan izan dugu ezker abertzaleak gehiago hitz egin beharko lukeela komunikabideekin, baina hel-du da argudioari buelta emateko ordua. Komunikabideek ere gehiago hitz egin behar dute ezker abertzalearekin.

*Martxelo Otamendi, «Euskaldunon Egunkaria»-ko zuzendaria.

Jose Julian Irizar, Gipuzkoako Diputaziorako EAren hautagaia

«Fruitu freskoena baino gehiago alkanfor usaina dago Diputazioan»

Lumarragako alkate izana da Jose Julian Irizar, EAko juntero Gipuzkoako Batzar Nagusietan —«ez naiz sekula EAJkoa izan» argitu digu Ferrerías kaleko egoitza ezagunean— eta lurralde horretan alderdiak duen idazkari nagusia. Diputatu nagusi izan nahi du orain, Gipuzkoara ere hiruko akordioa zabaldua.

Nicolas Redondo Terre-rosek dioenez, EAko ez dago fidatzerik...

Eusko Alkartasunak zerbait izatekotan fidagarritasuna dauka: hitza leku guztietan mantendu dugu, Legebiltzarrean bezala Batzar Nagusietan edo udaletan, agintean egonda eta egin gabe.

Sozialistek etxe barruan badaukate nahiko buruhauste, eta norbaiten fidagarritasuna zalantzan jar baliteke, PSOErena da. Gipuzkoako PSEkoek diote beti gurekin joan nahi dutela; Bizkaian, berriz, besterik diote.

Hiruko Jaurlaritza honen maiatzeko azterketa gainditu baietz zenbat jokatuko zenuke?


Jokatzeke eduki egin behar dirua... Baina gobernu ho-

nek legealdia baietz osatu 'momioa' nahiko goian ipiniko nuke. Hirukoa da egonkortasun handiena ematen duen aukera. Tirabirak egon dira, eta egongo dira, normala da, nor bere etxea zaindu behar du. Baina maiatzetik aurrera hirukoa udal eta diputazio gehienetara zabaltzen bada, gobernu honek iraungo du lau urtez.

PPrekin erraz egin al duzue tratua?

Akordio zehatza izan da, gure eskubideak defenditzeko. PPri ere ongi datorkio bere jokorako sozialistei senadore bat kentzea. PSEk ez duelako akordio batera iritsi nahi izan gertatu da hau, eta guk eskubide osoa geneukan beste batekin adostasun batera iristeko.

Matematikaren arabera



«Albisturren ihesak tristura, mina eta amorrua eman digu. Nik asko defenditu nuen», adierazi digu Irizarrek. (Arg.: A. Elozegi).

EAJk izango zuen eskubidea bi senadore edukitzea, baina askotan politikan ikuspegi zabalagoa izan behar da. «Nirea niretzat eta zurea erdi bana» egiten du

EAJk. Logikoa izango zen, hiruko akordioa bada, senadore bana izatea bakoitzak, baina PSEri negoziatzeko asmoa edo gogoia falta izan zaio.



■ **Aurrekontu monetaristen ordez ideien aurrekontuak nahi ditu EAK Gipuzkoan (Arg.: A. Elozegi).**

Albisturrek aldegitiek min handia egin dizue...

Erakunde guztietan egoteari garrantzi handia ematen diogu EAn. Nafarroako Parlamentuak izendatutako senadorea daukagu, eta maiatza ondoren hori gabe gera gintezke.

Albisturren ihesak tristura, mina eta amorrua eman digu. Nik asko defenditu nuen, lagundu ere bai Madrillgo Parlamentura joateko, eta ikusi dugu nola ordaindu duen gure laguntza. Jadanik, ordea, historia da gai hori.

Iaz urte sasoi bonetan mugitu zen Gipuzkoan abertzaletasuna elkartzeko manifestua.

Eusko Alderdi Jeltzaleak

horrelako gauzak beti hauteskunde bezperatan ateratzen ditu, trebea da horretan. Gero senadorea edo mahaikidea hautatzerakoan nahiago du estatalista edo espainolistari lagundu abertzaleari muzin eginda, joan den astean ikusi dugun bezala.

Guk beti esan dugu gure zerrenda propioak landuko ditugula. Alderdi ezberdinak gara, atal soziologiko ezberdinetan gaude, eta herri honentzako aniztasun hori beharrezkoa dela uste dugu. EAJ espazio kontserbadorean dagoen bezala, guk esparru aurrerakoi eta sozialdemokratan egon nahi dugu. Azken hauteskun-

deetan ikusi da jendeak alderdi abertzaleen arteko akordioa nahi duela, baina halaber pluraltasuna nahi duela. Nork bere indarrak joan behar dugu, eta emaitzen arabera iritsi adostasunera.

Ez al zaudete CiUren eskeman interesatuta?

Ez, geure proiektu politikoa defenditzen dugu. Bada esparrua gurearentzat, eta hor jarraituko dugu. Katalunian abertzaletasunaren ikuspegi desberdina dute, politika egiteko bestelako ohiturak dituzte. Eta CiUren abertzaletasuna ez da Euskadin guk daramaguna bezalakoa.

Nola ikusi dituzu Ondarroako gertakizunak?

Tristuraz, horrelako gertakizunek ez baitigute ezertan laguntzen. Polizia dagoen herri guztietan —denetan, beraz— gertatzen dira horrelako arazoak. Atutxak Legebiltzarrean bere azalpena eman du eta pentsa-

«Politika egiteko modua aldatuko dugu, Diputaziora benetako herrigintza eramanez: gipuzkoarren udaletxe handia bihurtu nahi dugu. Herritarrek udalekiko sinesgarritasun handia dute»

HAMARREKOA

ENRIQUE ERENTXUN

«Donostiako hurrengo alkatea»

J.M. GORORDO

«Eudelen ezagutu nuen; orain iparra galduta dago»

ELI GALDOS

«Azken urteotako bere erabaki onena, errespetoz diot, jubilatzea izan da»

X. ZUBIZARRETA

«Alkate ona, lagun ona, baina egiten duena baino gehiago egin lezake HBren etorkizuna zuzentzeko»

S. INTXAURRAGA

«Lagun ona, langilea, eta abertzale tinkoa»

XANTI VAL

«HBko Gipuzkoako lehendakaria, lagun ona; berarekin bazkaltzea une jator bat pasatzea da»

ODON ELORZA

«Medioetatik ezagutzen dut. Kaltegarria izan da alkatetzako lau urteotan»

J.M. AGIRRE


«Izugarritzko dezepzioa eman didan gizona»

J.M. JAUREGI

«Bere traiektoria jkusita, dagoen gobernadore postuan ondo dago»

JOSEBA ARREGI

«Euskal komunikabide eta kuturan sortu dituen iskanbilak oso txarrak izan dira herri honentzat»



Gasteizko gaurko hirukoak legealdi osoa iraungo duela ziur dago Irizar. (Arg.: A. Elozegi).

tzen dut Ertzaintza burubelari sartuko zela, erantzukizunik baldin bazegoen, bilatzera. Erantzukizunik ez dagoela esan du Atutxak, printzipioz sinetsi egin behar zaio. Eta hala bada, denontzat hobe.

Pentsatu behar da Ertzaintza oraindik berria dela, esperientzia falta ere handia izango du seguru aski, baina ahalegin guztiak egin behar

ditu horrelakorik gerta ez dadin.

Bake bideak jorratzeko giro lasaia behar dugu, eta horrelako jokaerak kaltegarriak dira denontzat. Jende guztiak dauka eskubidea manifestazioa egiteko, eta horietarako deia egiteko. Ohitura demokratiko hutsan egin behar du lan Ertzaintzak, eta horrelako akatsak konpondu.

Ezker abertzaleak uste du Ertzaintza bere kontra ari dela.

Ez dut horrela sentitzen. Zumarragan duela zazpi urte neu alkate nintzela zabaldu zen Ertzaintexea, eta arazorik ez dugu izan. Egia da KAS eta HBko jendearen eta Ertzaintzaren artean arazoak egon badaudela, baina hori herrian dagoen tentsio klimaren barruan sartuko nu-

« HBko jendeak ausartak izatera animatuko nituzke; Irlandan eta Palestinan ikusi dugu nola konpondu diren arazo historikoak »

ke, ez Ertzaintza haien kontra bereziki ari delako.

Zu ala Roman Sudupe izango zarete Gipuzkoako hurrengo diputatu nagusia?

Futboleko bezala, hemen ere zelaira irabaztera ateratzen da. Gipuzkoan lau urteotan egin den politika modua aldatzea da gure helburua, haize berria sartu Gipuzkoa plazako jauregi horretan. Hor gehiago dago alkanfor usaina fruitu freskoena baino. Talde gaztea sartuko gara, hori aldatzea posible dela erakustera.

91ko hauteskundeetan EAJri irabazi genion Batzar Nagusietarako, lehen indarra HB izan zen arren. Mezua herrietan zabaltzeko aukera baldin badugu, irabaz dezakegu.

Zertan aldatuko duzue Diputazioa?

Politika egiteko modua aldatuko dugu, Diputazioa benetako herrigintza eramanetz: gipuzkoarren udal txeki handia bihurtu nahi dugu. Udalak dira eta herritarrentzako sinesgarritasun handiena duten erakundeak.

Gero, Gipuzkoan dugun pluraltasun horren aberasatasuna indartu nahi dugu, tolerantzia bezalako baloreak sendotu, ea azkenean benetako bake bidea hartzen dugun. Eta azkenik, Galbraith-ek aipatzen duen

ongizatezko gizartea sendotu nahi dugu, aurrekontu monetaristak baino, ideien aurrekontuak egin.

Gipuzkoarekin hartuko dugun konpromezua zehaztuz, hamar-hamabot puntu oso garbi eta zehatzeko konpromezua ari dira prestatzen egunotan EAn antolatu ditugun hiru talde, alkate, zinegotzi eta independentez osatuta.

Baina sosak bukatu egin omen dira, eta manio-bratzeko lekurik ez duzue izanen.

Tresna asko daude erabiltzeko. Neurri fiskal eta finantziariek orain dauden planak aurreratu litezke. Ausartak izan behar dugu, Diputazioak nahiko tresna badauzka eta. Dirua dagoenean gauzak egin eta ez dagoenean etxean gelditu, hori ez da egin behar. Posibilitateak badaude.

HBko barne eztabaidarako paperetan diotenez, EA abertzaleagoa da EAJ baino, baina agintea eskuratzeagatik hurbiltzen ari zaio.

Hori paperetan jartzen duen kontzeptua dela uste dut. HBko askorekin eta goi mailako jendeekin harreman handia dut eta ez da gutaz duten benetako kontzeptua. Paperetan, askotan,

T A N T O A

Gela itxitik plazara

LAUGARREN hamarkadaren bueltan dabilen belaunaldikoa da Jose Julian Irizar, eta oraintxe suertatu zaio politikagintzan darमतзан urteetan parean jarri dioten erronkarik korapilatsuenari aurre egitea.

Goierritar militantea omen da Gabirian jaiotako ekonomista hau, eta bere bailaran egin ditu orain arte jendaurreko merezimendu politiko nagusiak. Eusko Alkartasunaren eskutik hasi zen politikagintzan, Euzko Alderdi Jeltzalean barrena bueltarik egin gabe, eta luze itxaron gabe heldu zen azken zotzi urte hauetan bete izan duen Zumarragako alkategora. Urte hauek ez

ditu oharkabean igaro. Onerako nahiz txarrerako, eman du bere lanak zeresanik. Angel Larrañaga adiskideak utzitako hutsunea berak bete zuen EArekin Gipuzkoako buru izendatu zutenean, eta orduan eman zuen «politika orokorrerako» jauzia.

Eguneroko lanean, goizean goiz hasten omen da Udaletxeko lanekin, eta berandu arte jarraitu alderdikoeekin, erretiratzeko inolako presarik gabe. Herria ongi ezagutzeko parada izan du, baina alderdiaren barne-muinetan ere primeran mugitzen omen da. Esperientzia horren guztiaren beharra izango du hurrengo hilabete hauetan gehiengoarentzat



NEREA AZURMENDI
Kazetaria

ezagunegia ez den Jose Julian Irizarrek. Bere alderdian dituen izar eta izar-ohien itzaletik irten eta, gainerako hautagiei aurre egiteaz gain, berak ere dizdira propioa izan dezakeela frogatu behar du. Plaza irekian erakutsi behar du orain tamaina bikaineko goierritar eta kirolzaleak gela itxitan agertu dituen abildade guztiak.

barruko giroa indartzeko ipintzen dira-eta gauzak.

Beste alderdien barne eztabaidetan sartzea ez dut atsegin, ez zaidalako besteak gure bizitzan sartzea gustatzen. Dena den, HBko jende asko ezagutzen dut eta ausartak izatera animatuko nituzke. Irlandan eta Pales-

tinan ikusi dugu nola konpondu izan diren arazo historikoak, eta bide horretatik zeozer egin daiteke. Horretarako alderdi abertzaleok adostasun batera iritsi beharra daukagu.

Zuk esango duzu nola...

Horretarako tresna onenak erakundeak dira. ETAK

biolentziaren bidea uzten badu —eta utz dezakeela uste dut— alderdi abertzale guztien artean ibilbide berri batzuk ireki daitezke. Bake bidera iristeko, eta herri honen eskubide osoak defenditzeko.

PELLO ZUBIRIA



Kaskazuri Kalea Tel. 49 32 26 OIARTZUN

Kaskazuri Kalea Tel. 49 32 26 OIARTZUN

H I R U M U N D U

■ HAUTESKUNDE GIROA
GERRA GARAIAN

ERRUSIAKO legebiltzar berria abenduan hautatuko da eta Ieltsinek ekin dio jada kanpainari. Baina beretzat horiek baino garrantzitsuagoak dira 1996ko urtarrileko lehendakartzakoak. Txetxeniako gerra hasi zenetik Ieltsinek etenbarik azpiratu izan du bera dela armadako buru eta Txetxeniakoa bere kontrolpean dagoela. Orain, oster, Txetxenian utzitako sarrakaren ondoren, armadako agintaritzak nagusia jo du erruduntzat. Hogei egunetako operazio militarra izan behar zena, kasurik onenean hilabete askotakoa izango da, baina urteetako balizkoa ere mahaï gainean dago. Bitxikerien artean, lehengo komunista, azkenotan liberal izan dena, orain sozialdemokrata bihurtu zaigu.

■ ZEDILLOREN NAHIA
ZAPATISTEN ERANTZUNA

EGURRA eta azenarioaren teoria praktika bihurtu da Chiapasen, baina horrelakoetan ohi denez, egurra nagusi da. Azenarioa zapatisten errendizioarekin besterik ez da etorriko. Zedillo lehendakariak ondo interpretatu du Wall Street eta Etxe Zuriaren mezua: Mexikoren finantz arazo larriek ordena behar dute. Gerrila zapatista, bestalde, berriro bere betiko bidegurutzan dago: armak hartu, honek zer suposatzen duen oso ondo dakielarik, edo elkarriketaren etenbako erreibindikazioarekin jarraitu. Zedillok zapatistek armez erantzutea nahiago luke, horrela chiapastarrak egurtzeko atxakia edukiko luke. Eta astindu ondoren, orduan bai, azenarioa.

■ GRAFOLOGOEK
GONZALEZEN ATZEAN

ESPAINIAKO sozialistei, PSOeri alegia, Italia eta Frantziakoan usaina darie. Ustelkeria, kaudilismoa, zahartzaro politikoa eta, finean, porrotaren usaina. Felipe Gonzalezek Craxi Italiako lehen ministro ohia edota Mitterrand eguzki erregearen bide berbera darama, eta ez litzateke harrizkoa Garzon epaileak bere lanarekin jarraitu ahala, Tunez edo Magrebeko beste edozein herrialdera turismoa egitera abiatzea. Politika fikzioa dirudi, baina GALEko ustezko sei buruzagi espetxean izatea ere hori zirudien duela lau hilabete. Craxi Tunezen da, Italiako epaileen deiari muzin eginez, Mitterrandi laster hautsiko zaio bere lehendakari babesa, eta grafologoak Gonzalezen atzean dabilta.



Angolako irudi bat da eta bere herriaren egoeraren adierazgarri, Angola moduko herri aberatsa argazkiko umea bezain biluzik baitago. Abenduan Unita eta Dos Santosen gobernuaren arteko gerraren amaiera sinatu bazen ere, gerrak aurrera jarraitu du, hori bai, su indar txikiagoarekin eta bakea gauzatuko den esperantza handiagoekin. Baina ume honentzat, seguruenik, eperantza berba hutsala da.



Jarraipenaren segurtasuna

JOAQUIM FERNANDO NOGUEIRA da Portugaleko Alderdi Sozialdemokrataren buruzagi berria. Cavaco Silva lehen ministroak eta orain arteko buruzagiak erretiroaren biderei heldu dio, nahiz eta oraindik, urriako hauteskundeak arte, lehen ministro moduan jarraituko du eta baita itzaleko botere moduan alderdian.

Nogeirak Cavacoren politikaren jarraipena suposatzen du, bere azken egunetako zenbait esaldik alderdiaren ezkereratzera adierazten badute ere. Esandakoak gehiago kokatu behar dira herritarren arreta erakartzeko jokaldian edota urriara artean izango den hauteskunde giroan. Alderdiaren gehiengoarekin hartu du buruzagitza eta berai ondo gidatu beharko du, hamar urte ondoren, Portugaleko Alderdi Sozialistak hauteskundeak irabazi ez ditzan.

Nogueira defentsa ministroa da gaur egun, eta aurretik ere legebiltzarreko arazoak, erregio garapena eta justizia ministerioak ere gidatu izan ditu. Segurtasun gutxikoa ei da; ezaugarri bitxia behinik-behin horrenbeste ministerio zuzendu dituen gizonarentzat.

MUNDUA EZ DA BIRIBILA

PAE-ISRAEL: prozesua geldirik

PALESTINAR eta israeldarren arteko negoziazio prozesuaren bi ezaugarri bere etorkizuna hipotekatzen dute. Lehen, Israelgo Gobernuak bere aldetik prozesuaren abiada aztertzeke eta, beharrezko ikusten badu, berai gerarazi edo aldarazteke duen gaitasuna. Bigarrena, Ekialde Erdiko bake prozesuaren hasiera izan zen 1991ko Madrilgo Konferentzia antolatu zen moduaren ondorioa da: prozesuaren garapena desbokatuko edo bideratuko duen nazioarte mailako —NBE zehatz-mehatz esanda— arbitro eza.

IRAGAN urtarrilaren 27an, Rabinek Osloko Akordioek aurrikusitako iragapenezko fasearen jarraipena, denboran muga barik bertan behera uztea erabaki zuela iragarri zuen Israelgo estatu irriatiak. Erabaki hau, antza, Netanyahu atentatu palestinar suizida izan aurretik hartu zen eta Arafaten onarpenerekin gainera. Honek lehenago atzera bota ei zuen israeldarren honako proposamena: hauteskundeak Israelgo Armadaren okupaziopean egitea. 1993ko irailaren 1eko Washingtongo agiriaren egutegiaren arabera, palestinar hauteskundeak Israelgo Armada Zisjordaniako gune populatuetatik erretiratu ondoren egin behar ziren, hots, iazko uztailan.

NOTIZIA honek, lurralde palestinarren —Eki Jerusalem barne— kolonizazio prozesuaren jarraipena iragaritzen dutenekin bat egiten du. Autonomiaren lehenbiziko urteko datuak esanguratsuak dira: iragan urtean PAErekin akordioa sinatu zenetik, Israelek palestinar lurraldeen 670 km² hartu ditu eta 14.711 fruitu arbola atera ditu koloniak dauden zabaldu eta haien arteko bide berriak egiteko. Dagoeneko, Zisjordaniaren % 73,6 israeldarren kontrolpean dago. Asentamenduetako populazioa % 20 hazi da, eta Zisjordaniako kolonoen kopurua 125.000tik 136.000 pasatu da; hau Eki-Jerusalem kontuan hartu barik, non 162.000 kolonoak jadanik bertako bizilagun arabiarrek baino gehiago diren. Jerusalem dagokionez, bereziki larria da israeldarrek 'Jerusalem Handia' zabaltzeko erabakia (gune hau hiriaren perimetro zabal batek osatzen du eta Zisjordaniako lurraldearen laurdena da).

Hamaseko edo Jihadeko islamista palestinarren atentatuak baino, neurri horiek dira palestinarren nazio helburuak kontuan hartuz horren mugatua den prozesu honentzako mehatxurik handiena. Kolonizazioak, negoziazioaren azken helburua geografian errealean bertan kolokan jartzen du: bideragarria izango den Estatu palestinarra. Asentamendu sare batek zatitutako eta ekonomia interes handieneko esparruetatik banatutako Palestinaren mapak, PAE eta Israelen arteko negoziazioaren bigarren fasea iraina bihurtuko luke.



Carlos Varela
Ekialde Erdiko analista

Jospinen hautaketarekin PSF lehendakaritzarako lasterketa buruan

Balladur tristearen arantza sozialista



M

iterrandi Eliseon jarraitzeko bi hilabete besterik ez zaizkio geratzen. Maiatzaren 7an Frantziak lehendakari berria izango du: orain arteko sondeoen arabera, Edouard Balladur egungo lehen ministro eskuintiarra. Eskuinean Balladur eta Chiracen arteko borroka RPRren baitan zauri garratzak uzten ari den bitartean, PSFk -gehiengoa gogoz, zenbait ez hainbeste- bat egin du Lionel Jospin hautagaiaren inguruan.

MITTERRANDEN hamalau urteek jota utzi dute alderdi sozialistaren eremua, barne

borroketan igeri, zatikatua eta boteretik urruti. Edouard Balladur lehen ministroak

oraindik ez du ia muturrik sartu lasterketan, sondeoen indarrak abantaila hori es-

kaintzen diote eta bitartean Chiracen erorketa itxaron dezake. Alferrik oster, Chiracek eutsi egiten baitio Balladurren erronkari.

Baina lasterketari bizitasuna eman diona, zenbait kide sozialistarentzat pipermina izan bazen ere, sozialistek lehendakaritzarako Lionel Jospin hautatzea izan da. Helburua: bigarren itzulira heltzea, eta zorte itzelez lehendakaritza irabaztea.

Otsailaren 5ean hautaketarako antolatutako kongresu berezian, argi zegoen Jospinek Henri Emmanuelli PSFko lehen idazkaria gailenduko zuela, baina ez horrenbesteko tartearekin: militanteen % 74k parte hartu zuen eta horietatik botoen % 65 eskuratu. Laurent Fa-



Mitterrandzaleek Lionel Jospinen aurkako borroka galdu dute.



Otsailaren 5ean PSFko militanteek alderdiaren aparatua gainditu zuten eta Lionel Jospin Eliseorako lasterketan jarri.

bius lehen ministro ohia eta mitterrandzaleen buruzagia izan zen galtzaile nagusia.

Jospin PSFko militante zaharra da, eta garaipen hau militanteek aparatuari irabazitako guda gisa hartu da, hots, mitterrandzaleen porrota. Baina, funtsean, Jospinek hauteskundeei beren ohizko-izaera eman ohi die: eskuina eta ezkerren arteko lehia. Dena den, 1981ean Mitterrand Eliseora sartu zenean, «Sozialismoaren Errepublikaz» egiten zen berba, gaur egun Lionel Jospin «Errepublika soziala»z mintzo da. Alderdi sozialistaren eskuinaratzeak aurrera jarraitzen du.

Bitartean, Balladur seguru dago, sondeoak bere alde baitaude, eta Jospinen sa-

rera honek mesede egiten dio gainera. Jospinek ohizko eskuin-ezker eztabaida dakar mahai gainera eta Balladurrek ez du borrokarik egin behar «duela 30 urteko bere lagunarekin», eta Chirac-i bigarren itzulirako hesia jar diezaioke. Horrez gain, Jospinek UDFtik sor litekeen hautagaitzari ere eremu zatia kentzen dio.

Jospinek, bestalde, zailtasun franko dauzka lehendakaritza bidean: lehenik, PSFko aparatutik egon dai-

tezkeen zango-trabak; bigarrenez, alderdiko balore berriek seguruenik izango duten partehartze eskasa, De Martyne Aubry edo Dominique Strauss-Kahn moduko pertsonen begirada 2002an kokatua dago. Hirugarrenik, sondeoetan oraingoz Jospin bera baino lehenago doa Chirac.

Mitterranden seme galdua

LIONEL Jospin 1937ko uztailearen 12an jaio zen. 1971n

Balladur seguru dago, eta gainera Jospinen sarrera honek lehen ministroari mesede eta Chirac-i kalte egiten dion ohizko eskuin-ezker eztabaida dakar mahai gainera

sartu zen PSFn Pierre Joxeren eskutik eta orduan eza-gutu zuen Mitterrand. Aurretik Algeriako gerraren aurkako militantea eta maiatzaren 68a bizi izan ziotuen. Laster egin zuen gora alderdian, 1973an jadanik idazkari nazionala da eta ondoren atzerriko harremanen arduraduna. Garai haietan, Mitterrand eta Jospin bikoteak bidaia ugari egin zituzten elkarrekin; oposizioko sasoi zoriontsuak izan ziren.

1981ean alderdiko lehen idazkari izendatu zuten eta une honetatik aurrera hasi ziren Mitterrandekiko lehenbiziko desperdintasan publikoak, Mitterrandek alderdiko lehen idazkaria ez zela lehen ministroa izango



Azken hautaketa honetan ere, Emmanuelliren alde agertzean, Mitterrandek berriro eman dio bizkarra Jospini.

■ Barne mailan gorantz berehala eginez, 1981etik 1988ra arte, sozialisten urrezko sasoiari, Jospinek gidatu zuen hamalau urtez lehendakari zena bere eskuetan izan duen PSF

iragartzerakoan. Une horretatik aurrera bien arteko zailtasunak areagotu egin ziren, Mitterrandek bigarren 'semea' ere bazuen eta: Laurent Fabius, eta gainera, 1984an, lehen ministro izendatu zuen. Garai hau, 1988a arte, izan zen sozialisten urrezko sasoiari, eta Jospinek berak gidatu zuen.

Bien arteko lehen gertakizun publiko serioa 1988an izan zen, Jospinek telebistaz eta aurretik Mitterrandi ezer esan barik, PSFko lehen idazkaritza utziko zuela iragarri zuenean. Mitterrandek, azalpenen zain zegoela azaldu, eta horrela geratu zen, zain. Azkenik, Rennesko 1990eko kongresuan le-

hendakariak Fabiusen aldeko jarrera hartu zuen.

Jospinek gobernu lanetan ere jardun zuen, 1988tik 1992raino Rocarden gobernuko Hezkuntza ministroa izan zen, Frantzian ministro gaitzenetarikoa. Gobernuko bigarrena zen, eta Mitterrandek Rocard kendu zuenean lehendakariak lehen ministro bera izendatuko zuela pentsatu zuen; baina ez, Edith Cresson izan zen. Ondoren, Berekogoyri egokitu zitzaion Matignoneko postua, eta gobernutik kanpo geratu zen. Aurretik, bizpahiru bider besterik ez dute elkar ikusi.

Gabon egunak baino lehenxeago, Jospinek Mite-

Chirac gora, Balladur behera

EDOUARD Balladurrek Matignoneko atea zeharkatu zuenean, Jacques Chirac buruzagi gaullistak Eliseorako atea zabalik ikusi zituen, areago gainera arerioa, PSF, barne borroka eta hondamenditik gertu ikustean. Lehen-




dakaritzarako egunak urritu ahala, dena den, Chiracek bere ikasle kuttunak Eliseorako atea gurutzatzeko zuen asmo irmoa gauzatu ikusi zuen. Matignonek berriro irabaziz gudu Parisko alkatezari, eta bertako bizilagunak lehendakari zarako bidea zabalik zuen.

Baina eguna joan eguna etorri, Balladurrek Matignoneko kontuekin jarraitu duen bitartean, Chiracek eta bere taldeak erruki barik astindu dute Balladurren irudia eta honek egindako 'itxusikeria'. Balladurren ondoan egon guran, Chiracek RPRren ohiz-

ko ideietatik ezkeragora ere jo behar izan du zenbait arlotan. Honek guztiak emaitzak izan ditu eta, inkestaz inkesta, Balladur gainezinez behera egin du eta Chiracek gora. Otsaileko bigarren astearen hasieran eginiko sondeoen arabera, hauteskundeetako lehenengo itzulian, Balladurrek botoen % 26 jasoko lituzke, 1993ko irailetik izan duen kopururik txikiena. Chirac % 20ra iristen da eta Lionel Jospin, alderdi sozialistaren hautagaia, % 19an geratzen da.

Bien artean oraindik distantzia handia bada ere,

politikoa, baina Chirac gora doa, eta Balladur behera. Balladurrek oraindik bere hauteskundeetako tresneria ez du ia martxan jarri, baina bere eskuineko aurkaria, bakarrik hondoratuko zelakoan, gutxietsi egin du.





Fabiusek eta Jospinek, biak Mitterranden seme kuttunak, urteetan elkarren aurka jardun dute.

rrandi lehendakaritzara aurkeztuko zela gaztigatu zion. Mitterrandek, Emmanuelli

eta Jospinen arteko jarrera neutroa hartu zuen, baina Dumas Mitterranden ger-

tuenetakoa denak ondo baino hobeto goraiatu zituen Emmanuelliren dohainak.

Jospin, Balladur eta Chirac ez dira, ordea, hautagai bakarrak, Maastrichten aurkako Philippe de Villiers ere hor dago, eta iragan Europako hauteskundeetan botoen % 12 lortu zuen; hala ere, oraingoan nonbait jatekotan, oraingoan Le Penen belardian jango du. Jean Marie Le Penek bizirautea eta lehenbiziko itzulian ahalik eta emaitza txukunak ateratzen saiatuko da. Rober Hue komunistak jai du eta sozialistei bigarren txandarako laguntza ahalik eta garestien saltzen saiatuko da, areago ekainean udal hauteskundeak direlarik. Azkenik, ikusi behar UDFko Raymond Barre edo Giscard D'Estaing aurkeztuko diren. Ezpatak tente daude eta baikoitza bereari eusteko prest.

XABIER LETONA



10 KM - OIARTZUN
Tel.: 943 - 49.10.68 / 49.20.68



CEPSA



100 KM - AMOREBIETA
Tel.: 94 - 630.87.39



27 KM - ARIZETA
Tel.: 943 - 36.22.60



55 KM - ITZIAR
Tel.: 943 - 19.93.94

Esteban Uribesalgo, Astore kirol-jantziak egiten dituen Import Arrasateko gerentea

«Gaur egun estatu mailako kirol etxerik handiena gara»

Astore kirol jantziaren egileak, Import Arrasatek, 90eko abuztuan ekin zion ehungintzari. Esteban Uribesalgo arrasatearrak dioskunez, Astore egungo kirol-jantzien errealitatean indarra hartu duen marka da.

Zer egiten duzue sarraila eta bozkailuen erresuman kirol-jantziekin?

Arrasate Kirolak dendatik sortu ziren Import Arrasate eta Astore, eta guztiak dira familia-enpresak. Hura txiki gelditzen zen guztiontzat, beraz, edo beste denda batzuk zabaldu, eta orduan gure arteko konpetentziari

ekingo genion, edo beste zerbait pentsatu behar zen. Aita izan dugu aholkulari eta baita ekonomi laguntza eskaini diguna ere.

Ez al zarete azkarregi bazi?

Hasieran zerbait txikiagoa pentsatu genuen, zortzi langileekin hasi ginen eta orain Arrasateko tailerlean 44 gabiltza. Josi izan ezik, bertan egiten dugu dena. Josteko ha- maika tailerrek egiten dutelana guretzat esprezki eta hauetan 200 langile ari dira. Marken artean Astore, Goshawk eta Terranova dauzkagu, besteak beste. Tyr lehiaketarako bainu-jantzi amerikarra egin eta Europan banatzeko baimena ere eskuratu dugu.

Dena den, hasieran zabal- kude handia egin dugu eta orain finkatu beharra dugu. Astore Espainia eta Europa-



«Astore sendotu behar dugu eta Terranova merkaturatu». (Arg.: X. Letona).

ko zerbait estatutan zabal- tzen dugu, Goshawk estatu mailan eta Tyr markarako oraingoz Europan banatzai- leak topatzen ari gara.

Zenbat esportatzen du- zue?

Oraingoz gutxi; guretzat helburu ona litzateke % 20 esportatzea. Batez ere Es- painian saltzen dugu, eta iparraldean nagusiki: Ka- talunia, Euskadi, Kantabria, Galizia... Orain Kanadan

fabrikatu eta komertzializa- tzeko baimena lortu dugu eta, horrez gain, Irlandan, Erresuma Batua, Beneluxen, Frantzia, Suedian... saltzen ari gara.

Inurrategitarrek, Reala, Asegarce, Euskadiko se- lekzioa...

Gure produktua kalitatez- koa da, horregatik prezioa erdi- edo goi-mailakoa da. Produktu onak egiten ditu- zunean, beti izango dituzu

«Leintz bailaran eta, oro har Gipuzkoan, ehungintzak ez du sustrairik, hemen aitzindari izan gara»

bezeroak. Marka egin eta irudia lantzeko, publizitate aldetik ere ahalegin handia egin behar da.

Hasieran, beraz, dirua sartu eta etekinik ez?


Hasieran, 1990ean, ekoizpena utzikeria izan zen, eta diru asko galdu genuen; inbertsio dena egina zegoen baina sarrerarik ez. 1991ean 100.000 jantzi egin genituen eta 1994ean 650.000, hor ikusten da gure garapena. Gure puntako teknologia-ekin urtean milioi bat jantzi egin dezakegu, baina ekoizpen osoa jartzea kostatzen da.

Beste marka batzuekin ere lan egiten duzue.

Gaur egun marka gehienak ez dira fabrikatzaileak, banatzaileak baizik. Hasieran lana behar genuen, beraz % 20 Astore zen eta % 80 beste marka batzuk. Gaur egun % 78 gurea da eta gainerakoa beste marka batzuenak. Apurka, beraz, gehiena gurea izango da, baina beste markei ere atea beti utziko diegu zabalik. Gaur egun Estatu mailako kirol etxerik handiena gara.

Berriak izanda, akatsetatik ere ikasiko zenuen.

Guretzat ez da samurra izan, Leintz bailaran eta, oro har, Gipuzkoan ehungintzak ez duelako sustrairik. Hemen aitzindari izan gara. Bezero ona funtsezkoa da, baina



Eguneroko lanaren garaipena

JOAN den irailean hasitako hauteskunde sindikalen prozesua amaitzeko legearen arabera oraindik bederatzi hilabete falta diren arren, emaitzen nondik-norakoak nahiko garbi daude. Alde batera, Euskal Komunitate Autonomoan sindikalismoaren irudi oso asimetrikoa daukagu: ELAk % 40a baino gehiago lortu du eta LAB, CCOO eta UGT % 15 inguruan dabilta. Oraindik ikusteko dago hiru sindikatuon arteko lehia lehena nor izango den.

Beste aldera, Nafarroan hauteskunde prozesua askoz ere makalago doa, baina orain arte izandako emaitzak oso esanguratsuak dira: UGTk bere lehen postu nabarmenari eutsi dion arren, sindikatu honen ordezkari kopurua dezente jeitsi da.

ELAk aldiz gorakada handia izan du: oraino enpresa eta lantoki askotan bozketak egiteko daude eta dagoeneko 1990eko hauteskundeetan lortu zituen ordezkari kopuruetara hurbiltzen ari da. Urte amaieran % 15-20 bitarteko ordezkartza lor dezakegu, CCOOrekin parekatuta. Foru Komunitatean ere ez dago garbi bigarren postua norentzat izango den.

Hau ikusita, ondorio bat garbia da: hauteskunde sindikal hauetan garaile oro har sindikalismo abertzalea izan da, eta ELA zein LABek, bakoitzak bere mailan, oso emaitza onak lortu dituzte. Horrek indar berria ematen die lan harremanetarako esparru propioaren aldeko ahaleginei.

Baina emaitzek klabe abertzale hutsean ez den beste irakurketa bat egiteko aukera ematen digute. Izan ere, hurbiltasunari garrantzia eman dioten sindikatuak, beren presentzia Euskal Herriko txoko guztietara hedatzen saiatu direnak egin baitute gora. Kupulako itunak egiten saiatu ordez lanpostu bakoitzera iristen ahalegindu diren sindikatuak jaso dute langileen babesa. Jokabide honen fruitu nabarmena ditugu ELAren emaitzak: gure sindikatu nonahi egoten saiatu da, eta horrela ia alde guztietan lortu du garaipena, bai eskualdeka eta baita sektoreka ere.

Nafarroako emaitzen analisiak berriz gauza bat adierazten du: sindikatu abertzaleen hazkundeak kontsigna politiko edo planteamendu ideologiko huts bati baino gehiago zor dio herriz-herri eta lan-tegiz-lantegi egindako lan xumeari. Abertzaleok herrigintza aurrera eramateko Nafarroan egin beharreko lanari begira behar bada ondorio bat atera genezake: ideologia baztertu gabe, eguneroko lanak eragin gehiago izan dezakeela jendea geuregana hurbiltzeko garaian.

GERMAN KORTABARRIA

ELAko Komunikazio idazkari noziozola

sarritan hornitzaile ona ezin duzu ordaindu. Hornitzaile onenekin ibilita ere, ehungintzaren esparruan planak betetzea oso gaitza da, eta horretaz konturatzea guri asko kostatu zitzaigun.

Hemendik aurrerako erronkak?

Gure markak finkatzea, hau da, Astore sendotzea eta Terranova merkaturatzea. Terranova kaleko jantzia da, tekniko eta material onez egin baina kaleko diseinu eta koloreekin, eurria eta hotzerako babes maila handikoa. Jantzi hauetara-

ko, XVI. mendean baleetara joaten ziren arrantzaleengan oinarritu gara. Horrez gain, berau egitean material ekologikoak erabiltzen ditugu, bereziak. Etorkizuneko jantzia egingo dugu.

XABIER LETONA

Inauterien tradizioari berriz ere eusteko saioa nagusitu da Euskal Herriko herri anitzetan

ISILARAZITAKO TRADIZIOA BERRESKURATZE BIDEAN

Urteko festa nagusietakoa den inauteria Euskal Herrian barrena ospatzen da gaur egun. Diktaduraz geroztik bereziki, lehengo euskal inauteri zaharra berreskuratzeko ahaleginak nonnahi aurkitu ditugu. Herrietan nagusiki, lehengo izaera eta usadioaren ispilu, hirietan ere espektakulu bihurtu dira.

EGUN desberdinetan bada ere, inaute festa, gaur egun, Euskal Herri osoan zehar ospatzen da, diktadura garaian ez bezala. 1975. urteik aurrera, gero eta gehiago izan dira tokian tokiko inauteri zaharraren ohiturak berreskuratzen saiatu diren herriak. Nafarroan, hala ere, etenik ez da izan, eta Jose Mari Satrustegi antropologoak argitu digunez, «*borregatik ezin esan daiteke antzinakoa berreskuratu nahian ezer egiten ari denik. Gerra garaian debekatuak izan ziren inauteriak, baina 'udaberriko jaiak' eta borrelako beste izenekin egiten zituzten*». Salbuespena Altsasuko inauteriarena izan da, «momotxorroak»

duela hamar urte berreskuratu baitira.

Arabian, berriz, Zalduendo, Salzedo eta Kanpezuko inauteriak errekuperatu dira, eta Laudion eta Amurrión ere errekuperazio bidean daude. Gesaltzan lehengo inaute festari eusteko ahalegina ezerezean gelditu da oraingoz, herria oso hutsa baitago. Oso pertsonaia esanguratsuak zeuden, baina galdu dira. Zalduendon Markitos da pertsonaia nagusia. Salzedon porreteroak: kalean ibili eta gero, jendeak jo eta arratsaldean juzgatzen da. Gero teilatura botatzen da, putreek jan dezaten.

Kanpezun pertsonaia errekarra botatzen dute. Laudion Leziagako sorgina



Jatorri 'paganoko' pertsonaia gorte dituzte inauteriek.

erretzen dute. Kondairak dioenez, Leziagan egotzen sorgina. Bestalde, haurren inauteriak ere oso aipa-

garriak dira, eta oso ohitura zaharra dira Arabian. Agian ezjakintasunak eraginda, ikastoletako haurrak Santa

Ageda egunean ateratzen dira kalera eskean, eta hau ez da inoiz ere egin Araban. Herrialde honetan *larderostegunean* ateratzen ziren haurrak, inauteri aurreko ostegunean hain zuzen ere. *Larderosteguneko* inauteriak garrantzi handia du, esate baterako, Aiara inguruan.

Gipuzkoan Tolosako inauteria da entzutetsuena, baina beste hainbat tokitan ere lehengo ohiturei eusteko ahaleginak ez dira falta. Errenteriako kasua da, zailantzarik gabe, aipagarri netakoa. 1979an Ereintza elkartearen bultzadaz hasitako ikerketa lanari esker, gerra aurretik egiten zen festa berreskuratzeko modua izan zuten. Bertan azeridantza, sardinaren ehorzketa eta diana dira elementu nagusiak. Honen harian, eta azken urteotan bertako inauteriak izan duen bila-kaera eta hartzen ari den ospea azaltzeko asmoz, Arantxa Urbe, Ereintza dantza taldeko partaideak adierazi digunez, *«gure herrian gerra garaitik ia galdutzat eman zitekeen inaute festaren tradizioari eustea izan da hasiera batetik gure eginbehar eta kezka nagusia; egindako ikerketa lana da horren lekuko, baina horrekin batera aporterazioak ere egin ditugu, hori bai, beti ere festaren funtsa errespetatuz; izan ere, herri oroimenetik berreskuratutako ospakizun hauet eutsi behar diegu, galduko balira gure izaeraren zati bat ere*

« Herri oroimenetik jasotako ospakizunoi eutsi behar, galduz gero gure izaeraren zati handia galduko bailitzateke »
ARANTXA URBE

Javier Sada, historialaria: «Herriko inauteriek eta hirikoek ezaugarri komun bakarra dute, izena»


Nola azalduko zenuke herrietako eta biritako inauterien arteko oinarritzko bereizketa zertan datzan?

Hirikoak ez du pertsonalitate berezirik, espektakulu hutsa da, eta herrikoa, berriz, beti pertsonaia mitiko, errito eta ospakizun jakin batzuen gainean eraikia dago. Herrikoan, mitologiarekiko erreferentzia oso garbia eta oinarritzkoa da. Hirikoaren sorreran, berriz, espektakulua egitea izan zen eragile bakarra; honen harian, diru gehiago dauka-

nak konpartsa hobea egiteko aukera handiagoa du, noski. Inongo tradizioarekiko loturarik ez dago, ezta pertsonaia jakin batzuen agerpena ere. Duten gauza komun bakarra, azken batean, izena besterik ez da.

Gebiago ezagutzen duzun Donostiaren kasuan, zein da inauteriaren aipamenik zagarrena eta bere sorrera?

XIX. mende osoan zehar aurkitzen ditugu Donostiako inauteriari buruzko aipamenak. Sorrerak ez



du halako bereizgarri nabarmenik. Jendea moztu egiten da, besterik gabe, eta hortik espektakulua egitearekin lotutako jaiak sortu zen. Garairik distiratsuen, bestalde, 1900-1924 bitarte izan zen, Gran Casino delakoaren laguntzari esker, Europako lehen hiru edo lauren artean kokatu baitzuen.



Donostiako «artzain eta inudeen jai».

galduko bailitzateke horiekin batera».

Honen ildotik, egindako ikerketa lanaren ondorioz egiaztatu ahal izan zuten, Ooreretako inauteriaren zita-

rik zaharrena 1602an aurkitu zuten. Berrikuntzak, berriz, ospakizunaren ikusgarritasuna oro har eta jendearen inplikazioa areagotzeko helburuz egin dituzte. Pertsonaia gehiago sartu dira, koplariak, bertsoak... Berreskuratu ere, Periko Lizardi txistulari zenak utzitako dianaren inauteriaren berrezko partiturak ere berreskuratu dira. Azeri-dantza

ere, mende erdi batez galdurik egon ondoren, orain dela 14 urte berreskuratu zuten Ereintza dantza taldeak, bertako zenbait aiton-amonak haurtzaroan ikusitakoa bildu eta gero eta Andoaingo Lizar-Makil elkartearen laguntzari esker.

Gipuzkoan, gutxi edo gehiago, herri gehienetan dira inaute festak. Andoain, Eibar, Hernani, Lezo, Ordizian... Donostia hiriburuan ere bada euskal inauteriaren adierazgarriak. Honen haritik, Joxe Jabier Murua eta Garbiñe Barrenetxea, Kresala dantza taldeko partaideekin izandako elkarrizketan halaxe azaldu digute: *«Artzainak eta inudeen jaiak 1885ean sortu zen. Gerra ondoren, 1977an berreskuratu zen. Azken urteotan inaute aurreko festa honetan Donostiako jendearen partehartzea gero eta handiagoa da, eta pertsonaia*

ere, ondorioz, gebituz joan gara: piruleroa, barkileroa, plantxadora, ogi-saltzaila...; donostiarrek inauteri mota bonen partaide ere izan nahi dute».

Bitxiaren artean, berriz, Zarauzko kasua aipa dezakegu; bertan, inongo tradizioirik ez duen Koxme balearen omenezko ospakizuna dute ekitaldi azpimarragarriena eta nagusia. Mixel Gorrotxategi, Zarauzko Alproja taldeko kideak zehaztu digunez, «zortzi urte dira Koxme balearen ideia gauzatu genuenetik, himno eta guzti, eta kalejiran ateratzen ginen herri osotik barrena. Hasierako esanahiaren arabera, jendeak, baleak aboa irekitzen zutenean botatzen zizkion baleak eramatea nahi zituen gauzak, eraman eta inoiz ekarriko ez zituenak gainera». Finantzaketa alorrean Udalarekin izandako arazoak medio, jatorrizko ekitaldiei utzi eta festa arrunta egiten da orain nahiz eta Koxme pertsonaia mantentzen den.

Bizkaiko kasuan ere urteik urtera gero eta gehiago dira festara biltzen diren herriak, eta lehenengo moduan ere festa egitea berreskuratu nahi dutenak. Bilbokoak dira, zalantzarik gabe, izaera

J. M. Satrustegi, euskaltzaina eta Antropologian aditua: «Lehenengo inauteriak eta oraingoak uztartzea, beren esanahian, ezinezkoa da»

Lehenengo inauterien adierazpideak XX. mendearen bukaeran berreskuratzeak ba al du zentzurik?

Lehenengo inauteriak eta oraingoak uztartzea, beren esanahian, ezinezkoa da. Orduko adibideek dauzkaten erritoak eta kalera begirako funtzionamenduak, berriz, gorde daitezke. Inauteria, berez, bizitzaren erantzuna zen, modu naturalean egiten zuten, ez zioten inori jaramonik egiten, ez zuten besterentzat egiten. Beren bizitzako ekintza bat zen.


Orain berreskuraturik, han beren bizitzarako egiten zituzten gauzak, inolaz ere, ezin dira maila horretan hartu, jendearen sentimena ez baitira berdinak,

orduko zibilizazioa eta gurea hagitz desberdinak baitira.

Orduan espektakulu bilakatzen da. Ohiturak gorde eta mantendu daitezke, baina gaurkotzeak ezin du inoiz bera izan.

Zeri erantzuten diote, oinarrian, euskal inauteri zabarraren agerpide desberdinek?

Mitoarekin erabat loturik daude. Mitoaren erantzun garbiak dira, eta gainera, zentzu erlijiosoarekin, harrigarri iruditzen bazaiugu ere. Mitoa zen erantzun oinarritzokoa. Komunean dituzte oinarritzoko gertaezak, ez hemen bakarrik, nik munduan zehar ikusi ditudan inauteri guztietan, eta eguzkiaren festetan ere.



Gertatzen da oso festa konplexuak zirela. Herriek gorde dituzte, bereziki, puntu batzuk toki batzuetan. Sinboloak asko zirenez, batzuk toki batean, eta besteak beste batean txertatuak gelditu dira. Baina oso zaila da gaur egun horiek denak aurkitzea. Lehenbiziko inauteriak udaberrian ziren, ilargiaren urte hasieran. Gero etorri da eguzkiaren urte hasiera, baina Elizak ilargiaren urte hasiera gorde du.

hiritarrena dutenak. Mundakan, berriz, betidanik izan duten ohiturari, hau da, inauteri igande goizean herriko mutil gazteak atorra izeneko jantziarekin jantzeari, lamiaren irudiaren berreskuratzea gehitu diote

duela hamar urtetik hona. Igande arratsaldean hartzen diote txanda emakume gazteek mutilei, soineko beltz luze batekin jantzita, aurpegia zuri-zuri pintatzen dute eta begi inguruak beltzez. Buruan, artilezko ileor-

deko batek osatzen du kalea bereganatzen duen lamiaren irudia. Pertsonaia berbera berreskuratzen saiatu dira azken urteetan Lamiak, bere izenaren jatorriari omen egin nahian, besteak beste.

ARGITALPEN BERRIAK

"ORTZI ETA KUKUMA" BILDUMA

AUKERA ZABALA!!



7.- ATXIA MOTXIA

8.- HONDARTZAN

Pasiotarrak - 48290 ● EUBA ☎ 6308036 FAX: 6308028



Errenterian «sardinaren ehorzketa» berreskuratu dute beste ohitura batzuekin batera.

Hego Euskal Herrian bezala ere, Iparraldeari dagokionez antzeko bilakaera ikus dezakegu, eta lehengo inaute festak ere berreskuratzen hasi direla esan daiteke. Guztien artean, Zuberoako Maskaradak dira,

zalantzarik gabe, inaute festa famatuenen artean ezagunenak. Baina hauetaz gain, Hazpamen ere ospatzen dira, Biligarroak izena duen elkarteak bultzatuta gehienbat. Zantantzarra da pertsonaia nagusia, eta

epai-keta egin, bekatuak berari egotzi eta erre egiten dute gero. Ustaritzen ere egiten dute antzeko inauteria.

Senperen, bestalde, desfilea egiten dute eta zantantzarra ere badute. Bitxia da, bestalde, Ipar Euskal Herrian ere orain dela hamabost urte hasi zela inauterien berreskuratze mugimendua.

Beste adibide bat aipatzearren, Donibane Lohizunen, esate baterako,

orain dela 50 urte desagertu zen inaute festa bertako ikastolak eta AEKren bultzadaz orain 15 urtetik berreskuratu da.


Berpizte honetan kutsu hiritarra duen inauteria ere ugalduz doa; besteak beste, Baiona, Garazi eta Hendaiakoa dira horren lekukoak. Ipar Euskal Herrikanpora ere, mugaz bestaldean Biarnon egiten da zantantzarra.

«Nafarroan gerra garaian debekatu zituzten, baina «udaberriko jaiak», eta horrelako izenekin egiten zituzten inauteriak»

J.M. SATRUSTEGI

PATXI SARRIEGI

BAQUE KAFEAK ESKEINITAKO ARGIBIDE KAFEZALEAK



Kalitatezko kafeak GORPUTZA eduki behar du, ahoan gozatzeko; eta MIKAZTASUN neurri egokia, bixitasun puntu bat izan dezan, eta FRAGRANTZIA jakin bat bere ZAPORE eta USAIN GOZOAK osaturik.

BAQUE KAFEA suabe... suabea

Poz handia ematen digu kafeaz dakigun guztia zure esku jartzeak.



Europako uholdeek eta Espainia hegoaldeko lehorteeek klima aldaketa iragartzen dute

EGURALDIA EROTZEN ARI OTE ZAIGU?

Azkenaldi honetan Holandan gertatutako uholdeak eta Espainiako hegoaldeko lehorteeek eguraldia erotzen ari ote den susmoa piztu diote bati baino gehiagori. Hitz errazetan erori aurretik, ordea, zientziak eta zientzilariek arazo honi buruz esan dutena bildu dugu orriotan.

«BEROTEGI» kontzeptua oso arrunta da gure gizartean. Nekazariak asko erabiltzen duten sistema da eta horri esker garai batean neguko barazki zirenak udan ere aurki ditzakegu, eta alde-rantziz ere bai. Berotegia eraikitzea ez da batere zaila; horretarako lur-sail bat eguzki-izpiak igarotzen uzten dituen plastiko garden batez estaltzea besterik ez da egin behar. Horrela eguzkitiko izpiek plastikoa igaro ondoren, estalitako lurra berotu egiten dute, baina lurra islatutako beroak ezin izaten du sail estalia igaro eta honen ondorioz beraz, plastikoz estalitako saila kanpokoa baino beroagoa egoten da.

Lurak antzeko fenomeno jasaten du. Eguzkitik etorritako izpiek Lurra jotzen dute eta Lurra islatutako beroak ezin du espaziora ihes egin; atmosferako zenbait gasak igaro ezineko hesia osatzen baitute.

Berotegi-gasak

FENOMENO hori gertatuko ez balitz, Lurraren batezbesteko tenperatura - 18°C-koa izango litzateke. Berotegi-efektuan garrantzi handiena duten gasak ondoko hauek dira: karbono (IV) oxidoa, metanoa, CFC, lurrazaleko ozonoa eta nitrogeno oxidoa.

Ikatzari, petrolioari eta gas naturalari erregai fosil deritze. Gure galdara, lan-



Uholdeek larritasuna piztu dute azkenaldion. (Arg.: E. Koch)

tegi, automobil eta energi zentroetan erretzen ditugu beroa eta energia lortu ahal izateko. Erregai fosil dei-

tzearen arrazoia, lurpean milioika urtean egon diren landare eta animalia hondakinetatik sortu izatea da.

Erregai fosilek karbono kantitate handia dute bere baitan eta erretzen direnean beroarekin eta energiarekin batera karbonoa CO2 moduan askatzen dute. Karbonoa atmosferatzeko bide-rik arruntena erregai fosilen errekuntzarena baldin bada ere, badago gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den beste bidea, hots, desforestazioarena. Gainera, desforestazioaren efektua bikoitza da: alde batetik, basoak erretzen direnean zuhaitz eta landareek duten karbonoa CO2 moduan askatzen dute eta bestetik, landareen funtzio klorofilikoaren eragina txikiagotu egiten da. Funtzio klorofilikoaren bidez, landareek CO2 atmosferatik hartzen dute, eta oxigenoa askatzen.

Metanoari dagokionez, egungo munduan hiru dira hau sortzeko bideak: bate-tik, animalia belarjaleen gorotzetatik; bestetik, arroztegietatik eta azkenik zabortegietatik. Hiru bide hauek areagotu egin dira azken hamarkada hauetan. Bestek beste, 1960-80 urte bitartean azienda bikoiztu egin da munduan eta adibide gisa Indiako zeruan gertatzen dena aipatuko dugu. Jakina da NASAko sateliteek munduko leku desberdinetako zeruak arakutzen dituztela. Ateratzen dituzten argazkien artean oso esanguratsua da Indiako zeruari dagokiona; bertan, bestee-tan ez bezala, metano-lainoa nabaritzen baita (kontuan

■ Gaur egun, euria egiten ez duen zenbait zonatan euria egingo luke eta aldiz, beste zona batzuk basamortu bilakatuko lirateke; honek estatuen artean tentsioak sortuko lituzke

Ai Klima, Klima, kupidagabe zaitugu kilima!

Ai Klima, Klima,
kupidagabe zaitugu kilima!


Azken urteotan
gizakiok gure komenientzietara
makurtzen saiatu gara
gure etxea dugun natura.
Sukaldeko eta mandiotako
kaleetako
etxeetako
fabrika eta oletako
tximinetako
egazkinetako
tuboskapetako
komunetako
zabor
hondar
lohikeri
zikin
hondakin
zakar

kutsakin
zarama
errekin
zikinkeri
suntsikin
zakarreri
alferrikaldu
utzikin
zarra-marra
apurkin
kaka
guzti-
guzti-
guzti-
guztiak

lurraren golkora
itsaso bihotzera
airetara
bota ditugu
lotsagabeok
kupidabakook
aurrerapenaren seme-alaba
harro progresistok
guk denok.

Ai Klima, Klima,
eruki gizaki tentelon arima!

Pello Zabala



hartu beharreko datua da Indiako azienda animalia kantitate handiak osatzen duela).

Gaur egun atmosferan dagoen metano kantitatea industri aroan baino lehenago zegoenaren bikoitza omen da. Gainera, metanoak beroa harrapatzeko duen ahalmena karbono (IV) oxidoarena baino hogeita hamar aldiz handiagoa da.

Lurrazaleko ozonoa


NITROGENOA oxidoari dagokionez, lehorrean zein uretan bizi diren izakiek sortzen dute batez ere. Baina gas hau sortzeko bide artifi-

ziala ere badago, hala nola basoak erretzetik, ibilgai-luen ihespedeetatik eta nekazari-erabilitate ongarrietatik. Mende honen hasieratik gaurdaino gas hau %80 hazi dela estimatzen da eta beroa harrapatzeko duen ahalmena karbono (IV) oxidoarena baino ehun eta berrogeita hamar aldiz handiagoa da.

CFCak dira, aldiz, ozono-uloaren erantzukizuna duten substantziak, gas-egoeran daudenean. Gasok espraletan propulso-re gisa, hozkailu eta aire girutuko instalazioetan eta azkenik enbalajeetan erabiltzen dira batez ere, eta beroa harrapatzeko duten ahalmena

karbono (IV) oxidoarena baino mila aldiz handiagoa da.

Estratosferan dagoen ozonoak izpi ultramoreetatik babesten gaituen bitartean, poluzioaren eraginez lurrazalean sortutako ozonoak arnas arazoak sortu ezezik beroa harrapatzeko ahalmena duen lainoa sortzen du. Beroa harrapatzeko duen ahalmena karbono (IV) oxidoarena baino bi mila aldiz handiagoa da eta esan bezala airea gutxi berritzen den leku poluituetan sortzen da, baina hainbat buruhauste dakartzagun berotegi-efektua sortzen duen gas garrantzitsuena dudarik gabe CO2 da.



Espainia hegoaldeko lehorteak klima aldaketaren adierazletzat aldarrikatu dute askok.

Lurra berotzen aritzean inguruko lehen hitzak zientzilarien ahotan jarri zirenez gero hamabost bat urte igaro dira. XXI.aren atarian gas marjinalen kontzentrazioa % 0,028tik % 0,035era igaro da, honen eragile nagusia CO₂ izanik.

Datuen hotsa

1958. urtean CO₂ren kontzentrazioa 315 ppm-koa

(bolumenean milioitik hainbeste) zen bitartean, 1990ean 354 ppm-koa zen. Beraz, epe horretan % 25eko hazkunde gertatu da. Batez beste, urtero erregai fosilen errekuntzatik atmosferara sei mila milioi tona karbono isurtzen da; desforestazioaren eraginez, berriz, bi mila milioi tona gehiago.

Atmosferak 700 mila mi-

lioio tona karbono metatzen ditu. Urek eta itsas hondoei 40.000 milioi tona karbono gordetzen dituzte eta urtero, gizakia konturatu gabe, atmosferak eta itsasoak 90.000 milioi tona karbono trukatzeko erregulatuak dituzte. Hain gutxi ezagutzen den sistema honetan ozeanoa erregulatuak aldaezina da. Zientzilarien ustetan, ozeanoak zortzi urtero atmosferako karbono osoa

Berotegiaren ondorioak larrienak, ur-mailak igotzea eta itsas korronteak aldatzea lirarteke

berritzen du eta beraz, atmosferako kontzentrazioa erregulatzen.

Datuak aztertuz

AZKEN ehun urteetan Lurraren temperatura 0,3-0,6°C hazi baldin bada ere, berehalako ondorioak ateratzea hipotesi hutsa izan daiteke. Iragarpen lokalek fidagarritasun-maila mantentzen badute, joera klimatikoak ondokoak izango dira: neguan goi-latitudeetan berokuntza batez beste espero dena baino % 50 edo 100 handiagoa izango da. Udan, osteran, poloetako temperatura-hazkunde batez bestekoa baino txikiagoa izango da. 35º eta 55ºpar latitudeen artean dauden lurretan euri-kantitatea % 10 inguru haziko da. Baina, lurren, izotzen eta ekosisteman portaera ez da ia deskribatzen, bai adierazpide ezagatik, baita fenomenoek nahiko gutxi jakiteagatik.

Igarotako klimen azterketak, iragarpen-erramintak hobetzeko balio du. Izotzetan harrapatutako gasen azterketen ondorioz, azken ehun eta hirurogei mila urtean CO₂ren eta metanoaren kontzentrazioa atmosferan ingurugiroko tenperaturarekin erlazioz egon dela baieztatzerik izan da. Baina kasu honetan ere dudaren bat baino gehiago badago; alegia, ea gasen era-

ginez Lurra berotu egin den edo temperatura-igoerak gas-desarra eragin duen ez da jakiterik izan.

Ondorioen harian

ONDORIORIK larriena, dudarik gabe, ur-mailak igo-tzearena eta itsas korranteak aldatzearenak dira. Beroaren eraginez, alde batetik ura dilatatu egingo da eta bestetik zenbait izotz eta glaziar urtu egingo da. Gauza asko esan da honen inguruan, baina Nazio Batuen eta Munduko Meteorologi Erakundearen artean sortutako IPCC erakundeko ikerlarien arabera, hemendik 2030. urte-bitartean uraren maila 18 zm. igoko da. Halaber, datorren mendearen bukaerarako ur-maila 65 zm. igotzea espero da. Kalkulu hauek egiteko berotegi-efektua sortzen duten gasen isurketa orain baino maila handiagokoa ez dela izango kontuan hartu da. Aldagai kontrolaezin bakarra basosuteei dagokiena da. Sutekantitateen arabera, lehen esandako datuak zertxobait alda daitezke. Sute gutxi izanez gero, 2030. urte bitartean 8 zm. igoko litzateke ur-maila eta 2100. urterako 31. Sute asko baldin badago aurreko bi balioak 29 eta 110 zm. bihurtzen dira. Ikusten

Luis Balairon, Klimaren Inbestigazio eta Anlisi Zerbitzuaren arduraduna: «Aurten Europan gertaturikoa eguraldi aldaketaren adibidetzat har daiteke»

Negutegi efektuaren eraginez gertatu al da eguraldi aldaketa?

Oraindik ez dago daturik. 10-15 urte pasatu behar dira negutegi efektuaren eragina neurtu eta gertatzen ari den aldaketa globala izango den jakiteko.

Zergatik sortu da orduan alarma?

Etorkizun ez oso urrun batean gerta daitekeena gaitik. Arrisku handi bati bezala egin behar zaio aurre, zeren eta aldaketa gertatuz gero arazoa oso larria izango baita. Kontuz jokatu behar dugu, ura eta erregai fosilen erabilera zentzuduna eginez.

Zeintzuk dira aldaketa bonen erakusleak?

Azken berrehun urteetan gradu bakarrean igo da temperatura, baina datozen berrogeita hamar urteetan 4 graduraino igo daiteke eta hau ez da normala.

Zergatik igotzen da tenperatura?

Arazoia bikoitza da. Naturala batetik, eta berotegi-efektua sortzen duten

gasen hazkundea bestetik. Etorkizunean arazoi nagusia bigarren hau izango da.

Zeintzuk izango dira ondorioak Euskal Herrian.

Euskal Herrian Europa iparraldean bezala gertatuko da, hau da, euri kopurua berdintsua izango da, aldatuko dena euria egiteko modua izango dela.

denez marjina handia da, baina, dena den, ez dugu ahaztu behar diferentzia honen arazoietakoa bat dela fenomeno honetan parte hartzen duten ezaugarriak orohar ez direla ongi eza-gutzen.

Itsak korranteak aldatzeak antizikloien eta eurifronteen zirkulazioaren aldaketa ekarriko luke. Gaur egun, euria egiten ez duen



zenbait zonatan euria egingo luke eta aldiz, beste zona batzuk basamortu bilakatu-ko lirateke. Egoera honek estatu desberdinen artean tentsio handiak sortuko li-

tuzke, hala-nola populazio mugimenduak eta uraren inguruko gatazkak, besteak beste.

JOSERRA AIZPURUA



elgar PARISEKO EUSKALDUNEN HILABETEKARIA

Artistak, elkarteak, industrialak, laborariak... zure kontzertu, erakusketa, aktibitatez informa gaitzazu Beren sustraiak mantentzen dituzten 3.300 irakurle da Elgar Parisen ere euskal kultura eginen da

Zergaitik ez harpidedun egin edo Pariseko lagun euskaldun bat harpidendu?

HARPIDETZA

Deitura
Izena
Helbidea


100 libera - urtebete - 10 ale (Elgar-en izenean txeketa)

Pariseko Eskual Etxea. 10, rue Duban 75016 Paris Tel: 07-33-1 42 24 98 87 - Fax: 07-33-1 42 24 03 12

«Bosniakoaren ostean, munduak lezioa ikasi duen itxaropena dut»

Defentsek beldurra diote. Atezainek zer esanik ez. Bere golek izen berezia daukate «kodrazoak». Hamaika lagun utzi dituen Mostarretik urrun badago ere, beti dago hango berrien zelatan. Bosniak kezkaturik daukanez, SOS Balkanes-ekin batera ahal duenean laguntzen du.

Lau denboraldi daramatzazu Realean jokatzeko. Ligan 127 partidu inguru jokatu eta 62 aldiz jaso dute aurkako atezainek baloia sareetatik; kurrikulum paregabea. Eginiezaguzu lau urte baue-tako azterketa.



«Gertatzen ari dena gertatuta, ez da harritzekoa bosniar eta batipat Sarajevoko herritarrentzat NBE esperantza izpirik ere ez duen erakundea izatea».(Arg.: Alberto Elozegi).

Primeran gogoratzen dut emaztea eta bederatzi hilabeteko haurarekin 1991ko irail hartan Donostiara iritsi nintzeneko hura. Hotel batean eman genituen lehen egunak, eta giro aldaketa eta hizkuntza zela-eta, hasieran arazoak izan genituen. Gero, lauzpabost hilabetez irakasle batekin jardunaz, arintasuna lortu genuen.

Kirolari dagokionez urte onak izan dira niretzat. Lehen urtean, hogeita lau partidutan, hamahiru gol egin nituen. Bigarrenean, nire herriko gerra eta sendiaren zatiketa zela eta, egoera apur bat aldatu zen, ahulxeago ibili nintzen. Iazkoaren antzera, laugarren denboraldi hau nahiko ondo doa.

UEFAra sartzea erreala da, edo amets edo utopia bat?

Aurrendenboralditan, beti, taldeko jokalarri guztiok UEFAra sartzeko nahia eta gogoa izaten dugu. Baina bada beste talde mordo bat lehiaketa horretan sartzeko asmo eta aukera gehiago dituztenak. Beraz, jakin badakit talde txikia garena eta

txapelketak poltsikoratzea... arrunt zaila da. Aurtengo Liga txanpa batean dago eta gu erdi bidean gaudenez, goikoak ez dauzkagu hain urrun ere...

Donostiako taldea bigarren itzuliko taldea dela esan obi dute.

Hala diote, baina egia esan lehengo urtean hori ez zen inondik inora ere bete. Hala bedi.


Salva Iriarterekin ia dozena bat partidu egin dituzue galdu barik. Hala eta guztiz ere jarraitzaileak nabiko urduri daude.

Daukagun akatsetariko bat zera da, ez garela joko ona partidu askotan zehar mantentzeko gai. Lehia batzuk nahiko ongi jokatu ostean, eta inor gutxik huts egitea (gu geu barne) uste duenean, punta-puntakoa ez den talde baten aurrean kale biribila egiteko gauza gara.

Adibidez, Ligako talde bikainenetarikoa duen Zaragozaren aurkako norgehiagoka edota Compostelaren partiduen artean, alde izugarria dago, eta aste batean jokatu genituen biak. Hor zerbait gertatzen da. Talde handien aurka jokatzean, ezertxo ere galtzeko ez dugunez, lotsagabe jarduten dugu. Baina aurkaria erraz menperatu behar dugunean, azken pasea edota gar apur bat falta izaten zaigu.

Emaitzak direla eta, zer nolakoa da aldagelako giroa?

«**Bosnia-Herzegovina banandu egin nahi dute. Banaketa honetan bosniar eta kroaziarrentzat herriaren %51 izango litzateke, eta gainontzeko guztia serbiarrentzat**»




Gure arteko harremana primerakoa da. Egoera ez da larritzekoa eta jakin badakigu azken aldi honetan nahiko ondo jokatzen ari bagara ere, zer hobetu edo zuzendurik badugula. Profesio-

nalak gara eta akatsak, hanka sartzeak onartu eta hitz eginez konpontzen dira. Bestela jai dugu.

Azken denboraldietan gol mordoak egin duzu. Izan al daiteke Mebo Kodro 94-95 tenboraldiko pitxitxia?

Noizik eta behin gerta daitেকেela pentsatzen dut, baina amets horrek ez nau kezkatzen. Zamorano, adibidez, talde benetan indartsu batean dabil; ni, aldiz, askoz

«Lehia batzuk nahiko ongi jokatu ostean, eta inork gutxik huts egitea (gu geu barne) uste duenean, punta-puntakoa ez den talde baten aurrean, kale biribila egiteko gauza gara.»
(Arg.: A.Elosegi).



«Gerra hirugarren urtean sartua dago, badakit ez dela bertan behera geldituko, baina dagoeneko ez da garai batean bezain interesgarria. Arazo bat hasieran handi bihurtzen da; denborarekin indarra galtzen du». (Argazkia: Alberto Elozegi).

umilago batean. Nire golak taldearentzat dira.

Velez Mostarren ere gol asko sartzen nituen, baina ez nuen inoiz pitxitxia eskuratu. Belgradeko Izar Gorrian, Pancev izeneko jokalaria handia zegoen garai hartan, eta bospasei urte bere itzalean eman nituen.

1992. urtearen hasieran Bosniak autodeterminazioaren erreferenduma egin zuen. Apirilean EBko Atzerri ministroek inde-

pendentzia onetsi zioten, baina gerra atarian zegoen. Nola gogoratzen dituzu une baiek?

Egia da Bosnia-Herzegovina herri bezala onartu zutela, baina eraso ezberdinak dirrela medio, lurraldearen %70 kendu digute. Ez zait politikaz hitz egitea gustatzen, baina denok dakigu zer gertatu den, eta komunitate internazionalak egin duena baino askoz gehiago egin zezakeen gerra bertan

behera uzteko. Ez dute ezertxo ere egin.

Gatazka hasieran dagoeneko Donostian nengoen eta albisteak zirela eta, hamaika tira-bira izan nituen buruan. Hala ere, gerrak denbora gutxi iraungo zuela ustea nuen. Triste eta ulertezina gertatzen da garai bateko lagunak elkar hiltzen aritea. Min hau guztia politika eta 'norbaitek' nahi izan duelako gertatu da. Eta munduak eta NBek zer portatera hartu duten ikusita, lurjota geratzen zara.

1992ko ekainaren 8an, NBEko Segurtasun Kontseiluak, Sarajevo babes-teko eta giza laguntza bi-ritarrei iristeko mila bat kasko urdin bedatzeko ebazpena jakinarazi zuen. Ez al duzu uste une hura momentu funtsezkoa izan zela, laguntzarako giza irtenbidea urratu beharrean, irtenbide politikoa lortzeko?

Gertaera hamaika eratan geldi zezaketen, bai politikoki bai gizalegez. Argi dago ez dutela egin nahi izan ez dutelako. Mundu guztiak daki eurentzat zer bait garrantzitsua bazegoela Bosnia-Herzegovinan... zeren eta gerra hamabost minututan geldi zitekeen. Diruak, tamalez, dena lor dezake. Badakit munduko leku askotan iskanbilak gertatzen ari direla, baina ez dut nirea ez den herriez mintzatu nahi. Gertatzen ari dena ikusita, ez da harriztekoa bosniar eta batipat Sarajevoko herri-

« Problema ez da Bosniarena soilik, Europa eta munduarena ere bada »

tarrentzat NBE esperantza izpirik ere ez duen erakundea izatea.

Beraz NBE gatazkei aurre egiteko sinesgarritasun osoa galtzen ari den erakundea biburtzen ari al da?

Eraso egiten ari zaizkion herri bati soilik giza laguntza luzatzen diote. Bosnia-Herzegovinan gertaturikoa oso tristea da. Hainbat haur, heldu eta zaharrek gorriak eta bi jasan dituzte, edota errefuxiatu edo preso daude. Kasko urdinak ere erasotzen edo inguratzen dituztenean, apenas egiten dute ezer. NBE bezalako erakunde batek ezin du hori onartu, ez baitituzte beraiek ere, munduko herrien ordezkari direnak, aintzakotzat hartzen.

Gatazka pil-pilean zegoenean, Bosnia-Herzegovinan sartzeko abalegina ere egin omen zenuen.

1993ko udan, Adriatikoko itsasotik sartzeko asmoa nuen, baina une hartan, bosniar eta kroaziarren arteko gerra hasi zen eta ez nuen modurik izan. Era berean, ihesi zetorren jendeak sartzeko aukerarik ez nuela jakinarazi zidan.

Bosniarrek arma enbargo gordina dute. Hau dela eta ezin dute defenditzea den eskubide zilegizkoa erabili. Honek gerraren agonia luzatzen du, ez?

Jakina. Hasieratik jasan dugu arma enbargoa eta hori ez da, inondik inora ere, zilegi. Lotsagarria da benetan! Berrehun edo hirurehun mila pertsona hil dira, eta armak izan bagenitu herritar gutxiago hilgo ziren. Planeta osoak, telebista tarteko, han gertatu den guztiaren berri



daki eta Bosnia-Herzegovinakoaaren ostean, eta munduko beste edozein lekutan halakoren bat berriz gerta ez dadin, lezioa ikasi duen itzaropena dut.


Urte bonen basieran esan zenuenez, jendeak Bosnia abaztea ikaragarritzat ikusten zenuen.

Jendeak ez du ahaztu. Gatazkaren irudiak, telebistako irudiak ikustean, ikusentzule asko hunkitu eta tamalgarrizat jo zuten gerra. Hasieran entzundako albisteek hotz uzten zaituzte, baina denboraren poderioz gauzak ahantzi egiten dira... Gerra hirugarren urtean sar-

«Hainbat haur, heldu eta zaharrek gorriak eta bi jasan dituzte, edota errefuxiatu edo preso daude.» (Argazkia: Albertos Elosegia).

NORTASUN AGIRIA

Mostarren jaio zen Meho Kodro 1967ko urtarrilaren 12an ● Lehengo batean emaztearekin tangoa... areto batean ikasten hasi zen: «Ene jainkoa, hau zoramena!» ● Velez Mostarren, 107 partidutan 53 gol egin zituen ● Arrantza egitea oso gogoko du eta aita edo lagun batekin Leizaran aldera joaten da ● «Edozein jakik, arraina edo haragia delarik ere, ardo on batez lagundua behar du», dio Mehok ● Badu jarraitzailerik, Donostiako Kodroren lagunak, Anoetako leihoetan «Naprijed (animo) Kodro» pankarta jartzen dutenak, eta Andoaingo Peña Kodro ● Andoaindarrek, gol bakoitzeko, ardo botilak eta txuleta bat ematen dizkiote





«Interes ekonomiko eta politikoak daudela bistan da, eta argi eta garbi dago bati baino gehiagori guda ez amaitzea interesatzen zaiola». (Argazkia: Alberto Elozegi).

tua dago, badakit ez dela bertan behera geldituko, baina dagoeneko ez da garai batean bezain interesgarria. Arazo bat hasieran handi bihurtzen da; denborarekin indarra galtzen du. Problema ez da Bosnia-Herzegovinarena soilik, Europa eta munduarena ere bada. Hori dela eta munduan batasun gutxi dago, ez baitago erakunde ahaltsuetan konfiantzarik. Interes ekonomiko eta politikoak daudela bistan da, eta argi eta garbi dago bati baino gehiagori guda ez amaitzea interesatzen zaiola.

Zure elkartasuna egunerokoa da. Zenbait senide Bosniatik Donostiara ekarri dituzu.

Denbora batez, hamalau lagun inguru izan nituen eta ahal nuenean lagundu nien. Egun bederatzi dauzkat, guraso eta ahaideak tartean

«**Min hau guztia politika eta norbaitek nahi izan duelako gertatu da»**

direla eta nik bakarrik lan egiten dut. Beraz, egia da futboleko jokatu eta familiarentzat ahalik eta diru gehien poltsikoratu nahi dudala. Jende guztiak ongi dakien bezala, nire gurasoek une honetan ez daukate ezer ere. Etorkizunari begiratu beharra daukat.

Une bonetan Bosnia-Herzegovinaren % 70 serbiarren esku dago. Zein izango da zure herriaren geroa?

Bosnia-Herzegovina banandu egin nahi dute. Banaketa honetan bosniar eta kroaziarrentzat herriaren %51 izango litzateke, eta gai-

nontzeko guztia serbiarrentzat. Bosniarrek, zatiketa honen aurrean, arazoa gizalegez konpondu nahi dute, ez kontaktu taldeek eginduten eran. Batek daki nola amaituko den gatazka, gerta daiteke borroka egoera honek urteak irautea.

Bosnia-Herzegovinan, eta Euskal Herrian, Sarajevo Aske eta Bateria-tuaren Deklarazioak zer nolako erantzuna izan du?

Harrera ezin hobea izan du. Sarajevon bertan, milioi erdi pertsonak sinatu dute hiria aske eta zatiezina dela aldarrikatzen duen agiria. Euskal Herrian ere 20.000 sinadura lortu dira eta beste behin, euskaldunok sufritzen ari den bosniar herriari elkartasun paregabea erakutsi diozue.

JON ODRIUZOLA




*Jalgi Hadi
euskaraz!*

1995eko martxoaren 17tik 26ra


D.GARAZI-GASTEIZ



aguntzaleak



ARGIA



Adabakiak josten eta jazten

ADABAKIA josi eta kitto! IU, PSE-EE, EAJ eta UA alderdiek istear dute arartekoak euskararen kontuarekin erakutsi duen zuloa. Nola? Bi begikio jostorrazaz. Begi batetik konponbiderako haria pasa dute, arartekoaren ordezkoa euskalduna eta independentea behar duela esanez, eta bestetik, gauzak zeuden lekuan utzi dituzte, hots, herritarren interesen defendatzailea erdalduna izango da.

Xabier Markiegiren neurriko erabaki honek, tarrantada ederra egin dio euskararen soineko sufrituari, beste bat gehiago, adabaki ederrenak ere estali akaso bai baina konponduko ez duena. Izan ere, jostorraz fin eta hari oso mehearekin josi ondoren, jazteko prestatu diguten ararteko honek ez du herri honen hizkuntz normalizazioa erdiesteko behar lukeen taila ematen. Oraingoan ere erdararen bigarrena

dugu euskara, eta inork argitu beharreko kezka euliaren antzera dantzan sudur parean: alderdion gehiengoak antzeko zenbat erabaki edo urratu dituzte prest euskararen alorrean? Neurri honetara egokitzen badituzte hizkuntz perfilen adabakiak, eta besteak, a zer estutua jaso behar dugun gerrialdean!

MARI Karmen Garmendiak «Euskaldunon Egunkaria»-n kulturako aurrekontuen inguruan aipatutakoak eta gero, Kultura saileko soinekoa neurri estuetan josten ari direla ikus dezakegu: «*Txikiziorik ez da egin, baina zenbait gauza kimatu egin behar izan dira*», argitu digu. Zera, murrizketarik badatorrela eta horiek jasango dituztenak abar txiki eta meheak izango direla, Euskal Irrati Telebistari gehitu egin baitzaizkio diruak eta Guggenheimen dolarrak ukituko dituen

aitaren semerik ez baita hurbildu ormaiztegiarraren ekipora.

Sutan jartzen denean probatzen da eltzea, eta Mari Karmen Garmendiari aurrekontuen neurriko adabakia josten antzeman diogu, «*baina ez dezagun sekula pentsatu gizarteko bizitza eta ekintzak diru publikoetatik zintzilika egon daitezkeenik*», edota «*diru*

■ Mari Karmen Garmendia sailburuak aurrekontuen inguruan esandakoak eta gero, Kultura saileko soinekoa neurri estuetan josten ari dela ikus dezakegu

Entziklopedien gerran, tiro hotsak baretu eta isildu zirela zirudien arren, ez da su etenik,

Lurrek zabaltako txostenean agertzen denez. Akordiorako puntuak zehaztu ditu bertan, Eusenor eta Klaudio Harluxet Fundazioak jaso dituzten diru publikoak salatu eta laguntzen iturriak isteko aldarrikatuz eta Administrazioaren parte hartze bakarra produktuen crosketan oinarritu behar duela adieraziz. Sua eteteko ala pizteko, nondik doaz tiroak oraingo honetan?

(Argazkia: Leire Arzuaga).



publikoak hor daude baina gutako bakoitzaren eginbeharra ere hor dago moduko arrazoien harian.

Hitz onak, kultura munduarekin haurreman hobeak, baina dirurik ez badago nola egin aurre esparru honetan hain premiazkoak diren konprometzei? Horra sailburiak diruak zenbatu ondoren, begi aurrean izan dezakeen tarratada. Abisua jaso dugu, eta kontuak egitea dagokigu orain, alegia, aurretik ere estu eta larri dabilen erakunde edo elkarte kimatzeak zer dakarren aztertzea.

ERRESISTENTZIAK antolatzen ari dira Araban. Amando de Miguelen azterketa zela eta, azken gertakarien inguruan, euskararen termometroak zaparralda iragartzen zuela azpimarratu genuen joan den alean, eta aterkia zabaltzen hasiak dira erauntsiari aurre egiteko. «Tolerantziaren izenean Araban elebitasunaren alde» manifestua sinatu dute kultur munduko pertsonai ugariak, Bernardo Atxaga, Patxi Goenaga, Endrike Kñörrek, besteak beste.

Errexala taldea sortu da bestalde, erasoek haserretutako hainbat arabarrek sustatuta eta «gazelaniatik ere euskara defenditu» daitekeela aldarrikatuz. Azkenik, ia 60 elkarte eta pertsonak «Araba eta euskara» agiria izenpetu dute, Batzar Nagusiak Tabula V enpresari eskatutako azterketa soziolinguistikoak «inolakoz zilegitasunik ez duela» eta euskara «truke-txanpon» gisa antolatu den jokua salatuz.

Mugimendu guzti hauek, euskara jasaten ari den erasoaren tamaina erakusten digute, eta erantzuteko beharra eta gaitasuna. Kalea eta herritar mugimenduak protagonista ditugu beste behin ere, euskararen ozono-geruza zulatu nahi duten alderdi eta instituzio kutsatsaileei aurpegia emanez, abiadurak eta intentsitateak makaldu nahi dituztenenei ezinegona azalduz.

Eta martxoaren 17an Korrika abiatuko da Garazitik. Euskararen aurpegia erakutsiz.

J.J. PETRIKORENA

UZTURE AURREAN DUDALARIK

Kutsaduraren sinonimoak

OSO modan dago, erruz aipatzen delako, aspaldi honetan kutsadura hitza. Baina beti esanahi berarekin erabiltzen da hitz hori, alegia, ekologia eta naturarekin erlazioz. Badirudi kutsadura aipatzen dugunean derrigorrez ozono-geruzaren gutxitzea aitzeko dela, edo gure ibaien zikina azpimarratzeko nahiz fabriken isuri pozoitzailea, esate baterako. Batzuk ordea, denok berdintsu garelako errudun azpimarratzearen, ekologistei, naturistei, eta mendizaleei egotzen diete zor zaien kulpak parte ikusirik mendiak eta nola uzten dituzten zerritgia baino kakaztuago.

BAINA ez dago dudarik egin beharrik esaten badugu kutsadura moeta gehiago ere badela gure artean eta askotan lehen aipaturiko kutsadura hori, hots, naturarekiko kutsadura ez dela larriena. Bada kutsadura moeta bat, kutsadura morala dei genezakeena zeinek pixkanaka gure barrua jaten duen minbizi bortitza bailitzen eta kanporatzen doana norberaren portaera okertu eta desbideratuz. Jakina, kutsadura moeta hau etikarekin doa guztiz erlazioz eta, hitz joku merkea aipatuz, oso kutsakorra da. Hau guztia begibistakoa bada ere jar ditzagun adibide batzuk.

Has gaitezen lehen aipaturiko bi kutsadurak nahasten. Azkenaldi honetan ikusten dugun fenomeno aski bitxia da: frankismoaren garaian politika munduan murgildutako zenbait pertsona ikusten ditugu partidu politiko batetik bestera saltoka, igel urdurien antzera, baita batzuk putzutik lehorera ateratzen ere. Batzuek beren buruak berziklatu egin dituzte eta gaur egun ekologista gisara azaltzen zaizkigu. Lehengoan bat herriska euskaldun batera inguratu zen bertakoei ekologiaz hitzegitera baina... gaztelera! Hori ez al da beste kutsadura moeta bat ala? Izena ere eguraldiaren araberak aldatuz doaz, eman dezagun, lehen Pepe Luis bazen gero Joseba Koldobika izan zen denbora puxka batez eta orain berriz —babesten duen partiduraren arabera— José Luis izan daiteke.



JOXEMARI ITIRRALDE

ADIBIDE asko eman genezake: euskaldun guztion Arartekoa izango dena, esate baterako, 'castellanoa' soilik izatea ez al da bada beste kutsadura moeta bat? Kasu honetan kutsadura izateaz gain iraintzat eta erasotzat ere jo baitaiteke dudarik gabe. Horixe baita beste kontua: kutsadurak izen ezberdin ugari hartzen dituela bere gain, sinonimo asko dituela hitz horrek. Azkenaldi honetan izandako heriotzak, bortxakeriak, torturak... ez al dira bada kutsaduraren beste aurpegi —aski latz eta itsusiak— ezberdin batzuk? Eta nonahi aurki daitekeen ustelkeria, korrupzioa, iruzur eta zikina ez al da bada kutsadura morala? Dudarik ez. Hemen ere 'ekologia' beharrezkoa zaigu. Orain eskoletatik eta gazteak bidaltzen dituzte halako eta halako mendiak eta parkeak zerrikeria garbituz dena poliki eta txukun utzi dezaten. Eta ongi ikusten dut. Baina kutsadura morala larriagoa denez gero norberak egin beza ispilu aurrean azterketa modukoa, har dezala zaku sinboliko bat eta hemendik aurrera denbora puska batean egin dezala saioa bere barruko ustelkeria garbitzen zakua bete arte.

TXUTXU - MUTXUKA

KORRIKAK EUSKAL HERRIKO MUGAK GAINDITUKO DITU

AURTENGO Korrikaren edizioak hainbat sostengu jaso ditu, Euskal Herriko mugetatik kanpora euskararen aldeko kilometroak luzatzeko xedez. Esanguratsua da Pariseko adibidea. Bertako Euskal Etxearen baitan euskararen irakaskuntzaz arduratzen den eta ikasturte honetan 85 ikasle bildu dituen Sustraiak-Erroak elkarteak «Eskuararen Eguna» antolatu du martxoaren 4rako, «Parisen Korrikaren alde» lemapean. Hitzaldiak, afaría eta erromeria egingo dituzte egun horretan. Bildutako diruarekin Gasteizen kilometro bat erosi eta Parisko Euskal Etxearen ordezkari-tza hurbilduko da korritzera.

NOR - NORI - NOR K



RAFAEL MARTI

zuzendari duen Euskadiko Baletak «La fille mal gardée» obra aurkeztu du. Ivanoven jatorrizko koreografia moldatu du, eta Natalia Sitnikova, Francisco Villicih, Julio Principe, Ruben Molina eta Andoni Larrabeitia aritu dira dantzari nagusi gisa. Ez da ordea, pozik agertu Martí, hemen lanean daramatzan 12 urteotan bitarteko gutxiarekin mirariak baino ez dituela egin esanez. Euskadiko Baleta erren dagoela ●



BERNARDO ATXAGARI

ofizio berria ezagutu diogu, aktorearena. Asteasuarrak Loquillo abeslariaren «La vida por delante» azken diskoko abesti bati letrak egin dizkio, eta orain berriz, berau promozionatzeko filmatu den bideoan sagardotegiko zerbitzariaren papera bete du. Aitor Zabaletak zuzendu du lana eta Donostiako San Telmo museoan burutu da. Bernardo Atxaga zinema munduari keinuka hasi ote da? ●



EDUARDO TXILLIDAK

kritikaren saria jaso du Arte Garaidikidearen Madrilgo Arco azokan, Espainiako Kritikarien Elkartearen eskutik. Bera izan da bestalde, Arcora hurbildutako euskal ordezkarien artean erakutsiena, hamaika standeko bildumetan parte hartuz. Apostu segurua egin du beraz, aurren, Arcok, saria banatzeko orduan. Izan ere, Txillida artearen 'burtsan' tontorrean mantentzen den balorea dugu ●

TELLAK

KARMEN LARUNBE
HIL DA

KARMEN Larunbe dantzari eta koreografoa otsailaren 19an zendu zen, Brusselaseko eritetxe batean. Aspalditik zegoen bertan, hezurretako gaitzak jota, dantza garaikidearen alorrean hainbat ekarpen egindako Nafarroako Kaskanteko artista. Bere aita emigrantearen eskutik Argentinara egin zuen txikitan, eta bertan harremandu zen dantzarekin. Misiones probintziako baleta zuzentzera iritsi zen eta egindako lanak eman zion famarekin beka lortu zuen Brusselasean jarduteko. Hiri honetan burutu zituen lanik gehienak. 1973an baleta osatu zuen, berak zuzentzen zuen eskola profesionaletik elikatzen zena. Brusselaseko Balet Garaikidearen zuzendari lanetan ere aritu zen. Bizitza osoa atzerrian egin arren, Nafarroa begi aurrean izan zuen beti. 1979an, «Gernika» lana Iruñean aurkeztu zuen, Pablo Sarasateren doinuetan oinarriturik. Bestalde, hainbat dantzari nafarri bere eskolan ikasteko atea zabaltu zizkion. Nafarroako Balet Garaikidea sortzeko asmorik ere agertu zuen, 1980an; proiektua hutsean geratu zen, ordea. Iaz izan zen azkenekoz gure artean, Nafarroako Jaialdietan, «Nuevo tango y boleros» azken obra aurkezten eta dantzatzan. Euskal folkloeari oso hurbiletik erreparatu zion, eta interes handiz jarraitu zuen. Azken urteotan Madrilgo Alcalá de Henaresko Unibertsitatean proiektu berri bati heldu nahian jardun zuen, baina hainbatetan legez, ez zuen behar adinako laguntzarik jaso. Karmen Larunberen errautsak Nafarroan barreiatu dira.

Hilaren 24an hasiko da Korrika Kulturala

Kultura Korrika dator

Euskal Herriko txoko guztietara heltzen den Korrikak badu laguntzaile ofiziala. Gauzez zein egunez, inoiz gelditzen ez den «kolore anizdun sugaeren» lorpenak ospatu eta goratzeko, kantariak, antzerkigileak, istorio kontatzaileak, bertsolariak eta dantzariak taulen gainetik gauzatuko dute Korrika Kulturala. Lurrealde guztiak hartuko dituen kultur ospakizun garrantzitsu batetaz gozatzeko aparteko aukera.

AEK-REN Bizkaiko bulegoan gaude. Erlojuak goizeko 11ak direla diosku. Telefonoa hartzen duen nes-

kak ez du oso aurpegi alai, txirrina buru barruan sartu zaiola dirudi. Maixa, Itziar, Garbiñe eta Sorotan Beleko

mutilen ahotsak gela batetik datoz, ahul: «*Jalgi badi euskaraz, laga erdara eta bizi ganoraz*». Alfabetatze Eus-

kalduntze Koodinakundeko neska-mutilek ez dute galtzeko betarik:


— «*7.000 kartel behar dira bemen; mutuak ez, beste bandi horiek*».

— «*Kontuz, zimurtu gabe*».

— «*Patxi, ekitaldien zerrenda, arratsaldean ETBra joan behar dut eta*».

Gela arteko txoko guztiak materialez lepo daude. Hankak luzatuta, kartelen gainetik pasa gaitezke. Patxi Gezuraga, Bizkaian Korrika Kulturalaren koordinazio lanetan ari den gaztearen mahaia paperez gainezka dago. Azkenengo lauzpabost asteotan Euskal Herriko kultur pertsonaia gehienekin hitz egin du, frontoi eta antzokien arduradunekin aritu da, sarrera kopurua eztabaidatu du eta herrietako batzordeekin elkartu da. Bera eta antolaketa lanetan parte hartzen duten guztiak badakite Korrika Donibane Garazitik ateratzen deneko denak prest behar duela, batzuetan mirakulu baten beharra izan arren.

Korrika Kulturala azken ediziotik aurrera Korrika Kiroolariari atera zaion zirkuitu paraleloa dugu. Ordura arte Korrikarekin batera hainbat



Mikel Laboak, 9. edizioko omenduak, martxoaren 18an joko du Gasteizen. (Arg.: Leire Arzuaga).

ROCK AND ROLL ETA ERROMERIA TALDEAK



Ama Say
Zarama
Sasoi Ilunak
Bap!
Su ta Gar
Baldin Bada
Gurutze Beltzak
Maixa, Itziar eta Garbiñe
Sorotan Bele
Lin Ton Taun
Trabuko
Etsaiak
Patagonia
Beltzez
Deabruak Teilatueta
Etsaiak
Urtz

Hainbat musikari eta taldek parte hartuko dute Korrika Kultural honetan: Lin Ton Taun, Etsaiak, Benito Lertxundi... Rock-and-rolla nagusi bada ere, beste musika mota batzuk entzun ahal izango ditugu. (Arg.: Aitor Bayo).

kultur ekitaldi antolatzen ziren baina ez zuten, oraingoan bezala, batasunik.

Edizio honetan AEK-k beregain hartu du antolaketa eta Korrikak behar duen aurrekanpaina gisa


erabiliko du. Honela, martxoaren 17an 'txupinazoa' Donibane Garazin jaurtiko bada ere, Bilbo izango dugu otsailaren 24an Korrika Kulturalaren abiapuntua. Ihafteriek ez diote garrantzirik

kenduko Xabier Amurizaren «Bizkaiko bertso anonimoak» liburuaren aurkezpenari. Kontu eta kantu emanaldi bikaina izango du aukeran Boulevard kafetegira hurbiltzen denak.

Hurrengo urratsak Ziordiko frontoira garamatza. Bertan, otsailaren 25ean, Anje Duhalde, Ama Say eta Zarama taldeak izango ditugu. Martxoaren 3an, Elorrioko Arriola kultur aretoak beste musika emankizuna eskainiko digu: Mikel Markez eta Anje Duhalderen giro intimistetan gozatzeko aukera hain zuzen. Baina rock and rolla gustoko dutenek ere badute aukerarik egun honetan, Santurtziko Mamari-ga eskoletan Sasoi Ilunak, BAP! eta Su ta Gar taldeek joko baitute.

Munstroak Bilbon

GIPUZKOARA abiatuz, Oiartzungo Madalensoro pilotalekuan martxoaren 4an Zarama, Baldin Bada eta Gurutze Beltzak izango ditugu. Bizkaian gelditu gura dutenek Dimarantz jo lezakete Maixa, Itziar eta Garbiñe, Sorotan Bele eta Lin Ton Taun ikustera. Trabukokoak Goizuetako frontoian izango dira.



BERTSOLARITZA

Andoni Egaña
A.M. Peñagarikano
Xabier Amuriza
Estitxu Arozena
Unai Iturriaga

Amurizak «Bizkaiko bertso anonimoak» liburua aurkeztuko du otsailaren 24an. (Arg.: Aitor Bayo).

Antzerkiak ere badu lekurik Korrika Kultural honetan, eta ez nolanhikoa. Imanol Agirrearen koordinaziopean, euskaraz aritzen diren Xilipurdi, Joxemari Karrere, Maskarada, Kuku-biltxo, Taun Taun, Markeliñe, Koxkorak, eta beste hainbatek, Bilboko Karmen elizaren aretoan jardungo dute, martxoaren 7an hasita «Munstroen bilduma» leinari jarraikiz egingo den galan.

Bertso saioak ugari izango dira egunotan. Azpimarragarria da martxoaren 10ean Lesakako Koxkonte sagardotegian antolatuko den bertso afaria, esaterako, Peñagarikano, Amuriza, E. Arozena eta Iturriagaren partehartzeaz.

Martxoaren 11n Donibane Lohizunera joatea gomendatzen dizuegu, bertan gaueko 9etatik aurrera «Ikušgarria» izeneko makrojaialdi baten lekuko izango baikara. 130 artistak parte hartuko dute, gehienak Iparraldekoak izanik, eta gauerditik aurrera eromerian dantzatu eta abesteko tenorea izango dugu denok. A zer festa!

Rock-and-rollarekin jarraituko dugu, gorputzari astindu bat emanez. Martxoaren 11n Baldin Bada, Etsaiak, Patagonia eta Bel-



Maskarada
Koldo Ameztoi
Txilipurdi
Gotzon Garate
Kukubiltxo
Malabaristak

«Munstroen bilduma» antzerki galan bilduko dira euskaraz aritzen diren antzerki talde gehienak.

tzez taldeek Erratzuko frontoian zabalduko dute musika. Biharamunerako, Benito Lertxundi eta Andoni Egaña izango ditugu Arrasateko Amaia antzokian. Az-

**Kultur ekin-
tzen artean Bilbon
egingo den Antzerki
Gala eta Doni-
baneko makro-
jaialdia ditugu**

ken honek «Tximeletak sa-belean» diskoaren lehenbiziko aurkezpena eskainiko digu, eta berriro elkartuko da Benitorekin Tolosako Leidorren martxoaren 17an.

Deabruak Teilatuan-ek, Etsaiak-ek eta Urtz-ek Korrika Kulturalako azken txanpa rockzalea egingo dute, egun berean, Donostiako Trinitate enparantzan.

Zerrenda luze honetan, baina, azken kontzertu erraldoia eskainiko digun kantari ezagun eta mirestua

dugu Korrika honetako protagonista: Mikel Laboa Gasteizko Principal antzokian taularatuko da martxoaren 18an.

Gurari guztiak asetzeko moduko programa antolatu du Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak 9. edizio honetarako. Aukerak Euskal Herriko mutur batetik bestera aurki daitezke, era guztietakoak. Korrikak badu kultur sarea prest.

MYRIAM GARTZIA



Urruzola'tar Prantxixku
Ansa'tar Miren

ELUTXETA
Sagardotegia

OZTARAN
BAILARA

☎ 55 69 81

20.130 URNIETA
(Gipuzkoa)

Felix Maraña, Bermingham argitaletxeko partaidea:

«Ohizko argitaletxeetatik urrun, erakundeei laguntzeko gaude»

Literatur lehiaketen ondorengo argitalpenak nahiko kaskarrak zirela sumaturik, Felix Maraña, Felipe Juaristi, Carlos Aurtenetxe eta Jorge Arangurenk Bermingham argitaletxea sortu dute. Lanak era duinago batean kaleratzea dute helburu.

Bermingham argitaletxea sortu berri duzue. Zein xede du?


Orain hogeitun ingurutik hona, erakunde lokal gehienak (udal, aldundi, kultur elkarte...) lehiaketa literarioak deitzen hasi dira. Ondo dator, txalogarria da. Erakunde hauek, baina, beste eginbeharrak dituztenez, laguntzarik gabe sentitzen dira prozesuan. Horrek eragiten du lehiaketako lanak argitaratzen diren moduan argitaratzea. Egileek euren izenak azalean ikusi nahi dituzte, homologazioa izan dezan nahi dute.

Lehiaketen helburua ere bada basi berriak edo idazle ezezagunak eza-gutzerara ematea, non egiten da orduan okerra?

Lehiaketetan sariak ematen dira eta pentsatzekoa da epaimahaia prestatua dagoela. Udaletxeak diru kopurua ematen du lehiaketak egiteko, epaimahaia izendatzen du baina kasu askotan honek ez du ia literaturaz ulertzen. Argitalpen kaskarrak kaleratzen dira eta batzuetan ez dira, gainera, argitaratu ere egiten. Askotan eskua edo saria ematearekin konformatzen dira.

Gainbehera borren aurrean zer zeregin izan dute idazleek?

Gainbeheraren erantzule ere badira neurri batean, bide hori bere horretan onartu dutelako. Beste erremedioirik ez zegoela pentsatzen zutenek, konformatu egin dira. Guk ohartarazi nahi




Felix Maraña idazle eta editorea. (Arg: Alberto Elozegi)

dugu, ordea, berdin kostatzen dela era egokian argitaratzea eta egun, askotan ateratzen den modu traketan egitea.

Nolako barrera sumatu duzue erakundetan?

Pasaiaiko Udalak, esaterako, oso ondo ulertu du gure planteamentua eta baita



«Literatur lehiaketetako lanak era duinagoan argitaratu nahi ditugu». (Arg: Alberto Elozegi).

beste zenbait erakundek ere. Euskarri duina behar da. Argi dago honek prozesu osoa hobetzea dakarrela. Lehiaketa hauetara aurkezten denak badaki dirua jasotzeaz gain, bere lana era egokian islatua ikusiko duela. Ziur naiz aurrerantzean jende gehiago aurkeztuko dela.

Argitaratzeaz gain beste eginkizunik bartu al duzue?

Argitaratu ostean banaketaren txanda dator. Udalak, kultur elkarteak... prozesu honetan parte har dezaten animatu nahi ditugu, horrela babes instituzionalak jasotzeko aukera dutelako. Alegia, Eusko Jaurlaritzak liburutegi guztietan banatzeko liburu sorta erosiz gero, hortik onura atera dezaketen erakundeak udaletxeak eta izango dira. Gure lana, arlo horretan, informatzea

da, abantailen berri ematea. Ez dugu prozesua monopolizatzeko asmo. Ohizko argitaletxeekin ez dugu zerikusirik, erakunde eta aktore pribatuei laguntzeko gaude hemen.

Lehiaketetako lanaz gain, bestelako lanik argitaratzea pentsatu al duzue?

Aldizka liburuak ere argitaratuko ditugu, merezi duela uste baitugu. Hasten den jendearenak zein oraindik baloratzeke dauden idazleak. Bilduma garrantzitsua argitaratzekotan gara. Itzulpenak egin ditugu gaztelaniatik euskarara eta alderantziz. Honek hizkuntza batetik bestera mugitzea ezezik, egileen arteko komunikazioa bideratuko du.

Euskararekiko zein politika jarraituko duzue?

Gaztelaniaz eramango dugun sostengu politika bera.

VIAJES  BIDAIAK

 OARSO
VIAJES · BIDAIAK

ASTEBURUETAKO ESKIA

OSTIRALETIK IGANDERA
CANDANCHU 7.800 PTA
ASTUN 8.400 PTA
BAQUEIRA 11.900tik
ANDORRA 10.100tik

BARNE: EGOTZA 2 GAU +
FORFAIT 2 EGUN

EGUNEKO ESKIA

IRTEERAK LARUNBAT ETA
IGANDE GUZTJETAN
GOURETTE 3.800 PTA

BARNE: BUS + FORFAIT +
GIA

FORFAIT SALMETA

ASTUN ETA CANDANCHU
2.500 PTA/EGUN

UNIBERTSITARIOAK ADI!
Karneta aurkeztuz gero, 2 egun
baino gehiagoko eski
bidaietan % 5eko deskontua

TEP
BIDAIAK
San Marcial 1
Tlf. 420071
Donostia

OARSO
BIDAIAK
Segundo Izpizua 6
Tlf. 529984
Errenteria

TEP
BIDAIAK
Urbieta 58
Telf. 460688
Donostia

**ASTEBURU BEREZIA
BUSEAN**


PIRINEOAK

BAQUEIRA 44.900 PTA
BARNE: BUSA +
EGOTZA 7 GAU 2
IZARRETA
HOTELEAN +
FORFAIT 6 EGUN

VALTHORENS 49.900 PTA
BARNE: LITERADUN BUSA +
EGOTZA 7 GAU +
FORFAIT 6 EGUN + TASAK +
ASEGURUAK

SESTRIERE 39.100 PTA
BARNE: LITERADUN
AUTOBUSA
+ EGOTZA 7 GAU +
FORFAIT
6 EGUN + TASAK +
IZARAK

BAQUEIRA OFERTA
BEREZIA
MARTXOAK 4-5
ASTEBURUA
13.900 PTA
BARNE: BUS +
EGOTZA
PENTSIO ERDIA +
FORFAIT 2 EGUN



Berminghamek bi liburu atera ditu jada. (Arg: Alberto Elozegi).

Ez dugu esango 23 euskaraz eta 23 gazteleraz editatuko ditugunik; ez dugu kantitateaz hitz egiten. Lehiaketa euskaraz bada euskaraz argitaratuko dugu. Beste urte batzuetan Pasaiako sarietan gaztelaniazko eta euskarazko liburuak batera argitaratu izan dira, eta neronek proposatu nien bereizketa, arrazoï simple bategatik:

bakoitzak baduelako bere irakurle esparrua. Oso ongi ulertu zuten. Praktikoak izan gaitezten: erakunde batek ez du gaztelaniaz argitaratzen euskarak duen laguntza sistemagatik. Jaso ditzala laguntzak euskarazkoak, beraz, gaztelaniazkoari ere lagunduko baitio. **Nola egingo da Berminghamen finantzaketa?**

« Ohizko argitaletxeek interes eta diruaren aldeko apustua eginga dute, dirua irabazteko daude eta -neurri batean dramatikoa da-, ez diote bestelako gauza batzuei begiratzen; guk, berriz, ez dugu plusbaliak sortzerik nahi»

Erakundeek beraien prozesuetan laguntzen diegun jende multzoa gara. Pasaiako Udaletxeak, era zehatz batean argitaratzeko diru kopurua erabiliko baldin badu, esango diegu gure eskuetan lan hori utziz gero merkeago atera daitekeela. Inprentekin harremanak ditugu, beraz, merkeago irten daiteke eta kalitate hobez. Erakunde horien borondate onaren gestoreak gara.

Erraza dirudi...

Praktikoak gara eta badakigu gauzak egiteko baldintza ekonomikoak behar ditugula. Hala ere, ez gara mezenasak. Mezenas lana egingen dugu erakundeekin, gauzak zein erataro egin ditzaketen esanez, baina gu kulturaren langileak gara. Prezioak popularrak dira: atera berri ditugun liburuak, esaterako, 600 eta 400 pezetan jarri ditugu salgai. Gainera, beheraldera egingo dugu. Izan ere, urte honetan 20 argitalpen inguru egitea dugu buruan. Zenbait

argitaletxerentzat, interes ekonomikoengatik egingo dugu, baina erakundeak beraiek dira onura handiena jasoko dutenak. Horrezaz gain, ez dugu argitaratuko erakundeek proposatzen duten guztia, kalitatezkoa dela iruditzen ez bazaigu bederen.

Egun zeren alde egiten dute apustu argitaletxeek?

Ohizko argitaletxeek interes eta diruaren alde. Guk, ordea, ez dugu plusbaliak sortzerik nahi. Ohizko argitaletxeak dirua irabazteko daude, baina dramatikoa da beste gauza batzuei ez begiratzea. Nire iritziz, prozesu hauek begiratu balute, beraiek ere ekonomia positiboa aterako lukete, bai eurentzat baita egileentzat ere. Euskal gizartean indar handia du pisatzen duen liburuak, argitaratzea asko kostatzen denak eta atez ate saltzen den liburuak.

MAITE ARTOLA

JUAN LUIS ZABALAREN ipuin liburua, SUSA argitaletxeak plazaratu berria

SAKONETA

11 ipuineko bilduma, 176 orrialde; liburudendetan salgai: 1.300 pezeta

EITBk «Kantuz Goraintzi» lehiaketa plazaratu du

Gizon-emakumeak kantari irrati-telebistako plazan

Euskadi Irratiak eta Euskal Telebistak «Kantuz Goraintzi» zaletuaren plaza bihurtu nahi dute. Beste ezeren gainera jokoa izango dela, eta eztarria indarrez izanez gero, parte hartzeko, diote antolatzaileek. Baldintzak zure neurrikoak direla.



Euskadi Irratiaren bidez entzungo dira kantariak, eta entzuleek aukeratuko dituzte onenak.

EUSKADI Irratiak eta Euskal Telebistak antolatu duten «Kantuz Goraintzi» lehiaketan berdin kabitzen dira taberna zuloan hainbatetan eztaarriari su eman dion gizon edo emakumezko hori, herriko koruan serio baino serioago ari dena edo edo-

zein erromeria taldetako kantari trebatua. «Beste ezer baino gehiago jokoa» dela azpimarratu digu Fran Lasuenek, ETBko «Goraintzi» programako zuzendaria eta lehiaketaren prestaketan eskuhartze zuzena izan duenak. Kantagintzan ari

diren profesionalak edo diskoren bat grabatu dutenak alde batera, hemezortzi urtetik gorako zaletuek parte har dezakete.

Bederatzi kantuko zerrenda osatu da, euskal doinu zaharrak, modernoak eta nazioarteko pieza ezagunak

bilduz, eta horietarik hiru aukeratu beharko ditu izena ematen duenak, sail bakoitzetik bana. Aukera egin bezain pronto, Euskadi Irratiak abesti horien *play-back*ak luzatuko dizkio, etxean lasai entseia ditzan, eta eguna jarriko zaio irratiaren Do-

Antolatzaileek adierazi digutenez, koruetan dabilen jendearentzat, erromeria taldeetan aritzen diren kantariantzat, eta oro har, edozein zaleturentzat plaza gokia gerta daiteke, nahi izanez gero, «Kantuz Goraintzi» lehiaketa.



nostiako egoitzan lehiaketarako grabazioa egiteko.

Otsailaren 25ean ekingo zaie grabazioei, eta hortik aurrera, jasotako ahots guztiak Euskadi Irratiaren uhinen bidez zabalduko dira, bi eratara: partehartzaileen aurkezpena Arantxa Artze-

ren «Bide Batez» asteburuko saioan egingo da, eta asteen zehar, Mertxe Ezeizaren «Ai ene!» programan jarriko dira doinuak, entzuleek onenak aukera ditzaten. Astero sei kantariren lanak entzungo dira, eta boto gehien lortzen dituzten laurek egingo dute

aurrera; aldiz, azken biak lehiaketaz kanpo geratuko dira, beste bi berriri aukera emanaz. Eta horrela, apirilaren 24tik 30erako asteen botorik gehienaz jabetu diren lau aukeratuek maiatzaren 5eko finalean luzitzeko aukera izango dute,

telebistak eta irratiak Zornotzako antzokitik zuzenean emango duten jendaurreko saioan. Aurretik ere, «Goraintzi» programak hainbat lehiakide kamera aurrean erakutsiko ditu.

«Probatu gabe ez geratu»

HALA eta guztiz ere, zalantzaren doinu astunetan ez aurrera ez atzera bazaude, entzun Mertxe Ezeizak esaten dizuna: «*Kantatzeko zaletasunik baduzu ez geratu probatu gabe. Ez da beste lehiaketetan bezala, zuzenean, nerbioak dantza sueltoan dituzula, kantatu beharra. Denbora duzu nabi adina eta nabi bezala entseiatu eta grabatzeko.*»

Bazkalondoko «Ai ene!» bere saioan bederatziko doinu entzungo dira etengabe lehiaketak irauten duen bitartean. Kantu zaharren saillean, «Maitia nun zira?», «Gazte gaztetandikan» eta «Triste bizi naiz eta...». Berrien artean, «Neskatxa mai-

Kantari onaren pentagrama

HONA hemen zure neurrira egindako hainbat kontseilu. Ondo kantatzeko bi dira funtsezko ezaugarriak: 'belarria' izatea eta entonazioaren mundua menperatzea. Solfeoa jakitea ez da, ordea, beharrezkoa, eta horren adibide ditugu nota baten usainik ere ez duten hainbat kantariren kasuak. Jakiteak, alabaina, ez dakar kalterik.

Kantari ona jaio egiten dela pentsatzen baduzu, ez zabilta erabat zuzen. Hainbat kasutan hala den

arren, belarria eta ahotsa heziketatik landutako askotxo dabil gure mundu txikian potorik egin gabe. Eztatia ez mintzeko berriz, ez erretzea eta alkoholik ez edatea baino doinu hoberik ez duzu, eta askotan kontuan hartzen ez duzun arren, lo egitea, ahotsean asko nabaritzen baita lo falta.

Jakin ezazu kantari on baten lagunik handiena ez dela etxeko ispilua, norbere abileziei neurria har diezaiokeen instrumentista ona baino. Zertan la-

gundu diezazukeen «Kantuz Goraintzi» gisako lehiaketak? Besterik ez bada ere, zure koadrila eta herriaren aurrean puntutxo batzuk irabazteko, eta «Goenkale-koen tamainan jartzen ez bazara ere, eza-gunagoa bihurtzeko, ezta? Fama lortzea ordea, ez dago zure esku. Fran Lasue nek dioenez, «*ez dut bere kasa lortu duen inor ezagutzen.*» Ez zaitetz larritu beraz, besteen esku dagoenari hor konpon, eta zu zurera, ezatarria gozatzera.



Finaleko txanpa Zornotzan jokatu da, maiatzaren 5ean.

te», «Aitormena» eta «Lau tei-
latu». Mundu zabalekoetan,
«C'est magnifique», «El reloj»
eta «My way». Fran Lasuenek
adierazi digunez, hainbat
irizpide izan dituzte kontuan
piezak aukeratzeko orduan:
«Tradizionaletan estatistika
osatu da, eta bildumetan
gehien azaltzen zirenak
jaso ditugu. Kantu berriekin
partebartzailaren perfilari
erreparatu diogu, bots, le-
hiaketa joko moduan an-
tolatuta dagoenez, batipat
gazte jendea hurbilduko de-
la uste dugu eta mundu ho-
rri erakargarri izango
zaizkion piezak sartu dira.
Azkenik, mundu zabale-
koetan jeneroak eta biz-
kuntzak nabastu ditugu».

Boleroa, balada, rock-
and-rolla.. eta euskaraz, in-
gelesez eta frantsesez; de-
netarik pixka bat, beraz.

«Hainbat jenero ukitzen di-
renez, parte hartzailearen
abotsak denetarako behar
du airea, eta horrek eska-
tzen du bai, prestutasun
bat, Fran Lasuenek esan di-
gunez. Ainhoa Arteta edota
Erramun Martikorena izan
beharrrik ez dago, ordea,
lehiaketari errespetoa gal-
tzekeo.

Tropeleko kantari horrek
forma-forman jartzea baino
ez duzula erantsi dit Mertxe
Ezeizak: «Nork daki ez ote
den 'Kantuz Goraintzi' fe-
nomenoren bat, edo batzuk,
deskubritzeko aukera ger-
tatuko». 250.000 pezetako
(10.000 libera) lehen saria
ere hor dago, fenomeno
aritu daitekeen gizon edo
emakumezko horren poltsi-
koari deika.

J.J. PETRIKORENA

La Casa del Café

— Juan Irujo S.A. —
DONOSTIA

MARTXOAK

4

larunbata

■ ALAIN CAZAUXEN ALDE KONTZERTUA

MARTXOAREN 4an, larunbatean, Frantziako Toulouseko presondegia aitzinean kontzertua egingo da Alain Cazaux preso intsumituaren alde. **Beltzez, Kaptan Egurrak...** eta beste talderik ere izango da elkartasun egun horretan.

■ BILINTX BERTSO TXAPELKETA

BERTSO zaletasuna sortu eta bultzatzea xedeztat duen Bilintx txapelketan parte hartzeko

Fito Rodriguez: «Euskaldunon artean ahozko produkzioak berebiziko garrantzia du»

ARGIA. *Abozkari-tzari buruz jardungo duzu Unibertsitate Hedapenerako bitzaldietan.*

F.T. Euskaldunen artean ahozko produkzioak duen garrantziaz ohartarazteko neronek sortutako hitza da. Gure gizartean badago nola-baiteko altxorra, iritziak bideratzeko eskema bat, idatzita dagoen diskurtsoarekin bat ez doana, eta informazioa emateko eta egituratzeko beste-lako eskemak baliatzen dituen. Egun guztiz inportanteak dira, adibidez, telebistaz dela, irrati edo kalean jasotzen ditugun informazioak. Hauen garrantzia eta eragiten dituzten pentsamenduak aztertuko ditut.

A. *Zeintzuk dira abozkaritzaren*



ezaugarriak?

F.R. Idatzizko diskurtsoan bigarren mailako perpausak aurkitzen ditugu, hari disurtsiboa... Ahozko sisteman berriz, kakofoniak ezinbestekoak dira informazioa gordetzeko, bigarren mailako esaldien orde perpausa askoz ere sinpleagoak eraikitzen dira, alegia, pentsamendua bera antolatu eta ekoizteko sistema ezberdina dugu, gure kulturaren berebiziko garrantzia izan duena eta duena.

deialdia zabaldu dute Donostiako Kultur Patronatuaren Larrotxene Kultur Etxeak eta Intxaurrondoko Bilintx Bertso Eskolak. **1977 edo 1978. urteetan Gipuzkoan jaiotako edozeinek eman dezake bertan izena, beti ere martxoaren 10aren aurretik.** Aurkezten diren guztien artean 16 bertsolari aukeratuko dira, apirilaren 1ean Ategorrieta ikastetxe publikoan jendaurrean txapela jokatzeko.

MARTXOAK

5

igandea

■ EGUZKIREN BERTSO SAIOA OIARTZUNEN

EGUZKI talde ekologistak, azken urteotako usadioari jarraituz, bertso saioa antolatu du, martxoaren 5ean, igandean, arratsaldeko 6etan hasita, Oiartzungo Madalensoro pilotalekuan. **Unai Iturriaga, Haritz Lopategi, Joxe Lizaso, Xabier Zeberio, Maddalen Lujanbio eta Mikel Mendizabal arituko dira** bertan, Joxerra Gartziaeren esanetara.

■ GAZTERIA ETA KULTURA SARIAK

NAFARROAKO Gobernuaren eskutik datoz Gazteria eta Kultura lehiaketetarako, lau ataletan banaturik: **kantautore eta pop-rock** sailak 14 eta 30 urte bitarteko gazteentzat daude zabalik, eta izen emateko epea apirilaren 7ra arte luzatuko da. **Antzerkian**, haur antzerkia eta talde gazteena berezitu dira eta martxoaren 17an itxiko da izen emateko epea. **Komiki saria** 15 eta 25 urte bitartekoentzat lotu da, eta partaide bakoitzak gehienez hiru lan aurkeztu ahal izango ditu, apirilaren 28aren aurretik.

IRUÑEKO Udalak bestalde, V. Pintura Biurtekoan parte hartzeko deialdia plazaratu du, martxoaren 15era bitartean. Nahi duen orori zabaldu zaio aukera, **lanaren gaia eta teknika librea da, eta gehienez bi koadro aurkez daitezke.** Epaimahaiak bost milioi pezetako (200.000 libera) fondoa izango du, obra onenak erosteko, eta hauek Iruñeko Hiria izeneko arte garaikideko kolezioaren esku geratuko dira.

MARTXOAK

7

asteartea

■ UNIBERTSITATEAREN HEDAPENA

DONOSTIAKO Udal Patronatua eta EHUko Gipuzkoako fakultateen artean Unibertsitate-He-

dapenerako Hitzaldiak burutzen ari dira, hezkuntza mundua ikasgelatik atera eta herritarrengana hurbildu xedez, eta era berean euskarari beste leiho bat irekitzeko. Martxoaren 7an, **Fito Rodriguez Bornaetxea Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea arituko da, «Ahozkaritza Euskal Herriko kulturaren gaiaren inguruan, Udal Liburutegian, 19.30etan.**

■ «BELAUNALDI BERRIAK» BBK ARETOAN

1936KO Gerraren aurretik beren izena eta artea nabarmendutako euskal pintoreak bildu dira Bilboko BBKn, «Belaunaldi berriak» deituriko erakusketan. Iaz abiatutako «Euskal Margolariak Aurrezki Kutxen Bildumetan» egitasmoaren laugarrena da honakoa eta martxoaren 5era bitartean egongo da zabalik. Dario de Regoyos, Iturrino, Losada, Zubiaurre anaiak, Narkis Balenziaga, Jose Sarreigi, Bienabe Artia, Roberto Rodet, Gaspar Montes Iturrioz, Jacinto Olabe, Ziriako Parraga, Jose Maria Uzelai, Pelayo Olaortua eta Nikolas Lekuonaren 36 lan gutzira aurkituko ditu ikusleak.



NESTOR Basterretxearen «Euskal kosmogonia» bilduma, 1972 eta 1975a bitartean haritzean egindako 16 eskultura txikiz osatua, ikusgai dago Beasainen. «Ostadar», «Ehiztaria», «Intxixu», «Mairuak», «Gaeko», «Mari», «Majue», «Idittu», «Akelarre»... izenak dituzte obrak eta Barandiaranek mitologiari buruz egindako irakurketan oinarrituta daude. Duela 20 urte burutuak izan arren, zabalkunderik ez dute ezagutu, eta horretaz oso kezu mintzatu izan da Basterretxea. Izan ere, zergak ordaintzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku utzi zituen, eta Artelekun gordeak egon dira, jendaurrera ekarri gabe. Interes bereziko erakusketa dugu beraz, Beasaingoa.

aizu!ren harpidedun izan nahi dut!

Izen abizenak.....

Helbidea.....

Tnoa..... P.K.....

Herria.....

Herrialdea.....

Bankua.....

Sukurtsal zka.....

Kontu zka.....

Urte osorako harpidetza:

Hego Euskal Herria: 6.300 pta.

Ipar Euskal Herria: 11.300 pta.

Atzerria: 11.3000 pta.

Diputazio kalea, 3 - 1. goa

40009 Bilbo - Tel. (94) 423 15 52

AZPEITIAN...



Pantxike!
AIZU! berriaren harpidetza
egitea lortu dut!
HAMABOSTEAN behin
jasoko dugu etxean!

L I B U R U A K

**IRAKURKETA
HIZKUNTZEN
IRAKASKUNTZAN.
GOGOETA BATZUK.**
CLAUDETTE CORNAIRE
HABE 110 or.

Irakurtze ekintzaren tartean dauden alderdiak; irakurlea, testua eta elkarren eragina agertzen ditu Claudette Cornairek. Irakurtzeak bigarren hizkuntza eta hizkuntza arrotzen didaktikan duen

lekua eta egitekoa arakatu nahi du liburu honek.

Bost planteamendutan irakurketak izan duen lekuari begiratu arina eman ondoren, gai horretan adituek onartzen dituzten printzipioak azpimarratzen ditu. Lehenik irakurleari eskainiko dio arreta, testuak eta irakurleek duten elkarreaginari ondoren, eta testuari azkenik ●

**INGURUGIRO
KUDEAKETARAKO
UDAL GIDA**

EUSKO JAURLARITZAKO
INGURUGIRO

SAILORDETZA 200 or.

Julen Rekondo, Carlos Alonso eta Salus Sanjosek zuzenduriko gida honetan, ingurugiroarekin zerikusia duten gaietan eratzukizuna dutenei orientabideak ematen zaizkie. Irakurlearentzat

gida praktikoa ere izan daiteke.

Hiru ataletan banaturik dago: ingurugiro alorrean udalek dituzten eratzukizunak, erantzukizun hauen atalkako garapena eta udalek gara ditzaketen zenbait plan. Interesgarriak izan daitezkeen zenbait helbide eta bibliografia-erreferentziak ere agertzen dira gidaren atzealdean ●

B E G I - B E L A R R I

L I B U R U A K


**Kalitatea zainduz eskaintzen den bilduma
anitza**

Artikulugileen inguruan emaniko lehen begiradak lankide-talde mardula eta anitza osatzen ari dela erakusten digu ale honek. Leihu ugari zabaltzen dira talde honen inguruan mugaz bi aldeko kulturgingintzan. Gero eta nabarmenago da gorantz egiten ari direla agertzen diren azterketa kritikoaren maila. Ohiko bideari jarraiki, beste modu batean tamalez galdu egingo zen hainbat mintegitako materiala biltzen du, hala nola Josemari Satrustegi euskaltzainak euskal mitologiaren emaniko hitzaldia edo Joseba Gabilondorena bera ere. Lehenean, mitoa zer den definitu eta gero, metodologia berria proposatzen digu. Bigarren lana, J. Gabilondorena, modernismoak euskal literaturan izan duen eragina aztertzen du, «Obabakoak» liburuaren arrakastari buruzko hausnarketa irakurleen ikuspegitik egin ez eta Atxagaren beraren lanen bilakaera aztertuz. Hirugarren lana, J. Bidadorrek egin, euskal kanti-

lenak edo lelo-mota ezberdinak ditu aztergai. Arlo hau oso gutxi jorratu bada ere, egileak, egun arte idatzi den bibliografia azaldu eta gero, hirutan banaturik aztertzen ditu, bakoitzaren ehundaka adibide bilduz.

Itzaki Aldekoak Juan Gartziazen «Itzalen itzal» lanaren gaineko azalpen llaburak sorkuntzari ematen dio bidea; Juan Kruz Igerabide eta Patxi Ezkiaga poeten lanak biltzen dira. Jose Elizondo antzerkilariak idatiziriko «Dollorra» ere aurkezten zaigu.


Aipagarria da bestalde Tere Irastortza poetak Mari Manenten poemak euskaturik ematen dituela. Azkenik, «Egan» aldizkariaren kondairako apunteen lehen zatia eskaintzen digute, aldizkariaren historia laburra eta egituraketa deskribatuz eta bai edukien zerrenda emanez ere. Amaitzeko, liburu-erreseinak, idazle ezagun ugari sinatuak. Beraz, alea guztiz interesgarria da eta gero eta nabarmenago



«EGAN»
EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN
ELKARTEA. 1994KO 2. ZENBAKIA

betetzen ari da euskal kulturaren, aldizkari mailan umezurtz zegoen hutsunea.

RITXI LIZARTZA



GAUEZ ZOO BATEAN
JUAN KRUZ IGERABIDE
 ALBERDANIA 58 or.

Jenero ugariko liburuak argitaratu ditu azken boladan Juan Kruz Igerabidek: poesia, saiakera, haur literatura.... Batez ere haur eta helduentzako poesia jorratu du idazle adunarrak. «Egunez parke batean» argitaratu ondoren, zoo batean barneratu da orain Igerabide, irakurleari Grigor eta erlearen ipuin eta abenturen jarraipena eskainiz.

Ia orrialde guztietan, Antton Olariagaren ilustrazio aberatsak barneratzen ditu «Kalamatxin» saileko bigarren liburu honek. Marrazki interesgarriak eta alaiak dira liburu honetarako Alberdania argitaletxeak aukeratu dituenak ●



HILKETA EUSKAL
HERRI-KULTURAN

HITZALBERRA: Jose Lab-Artzea Eparanzkoa, "Tullardog"



EDITORIAL IRALKA

HILKETA EUSKAL
HERRI-KULTURAN
AITXUS IÑARRA
 IRALKA 94 or.

Azkue eta Barandiaranen ahozko ipuin eta ele zaharretan hilketa nola gauzatzaren den aztertu eta krimenaren ezaugarriak agertarazi ditu Donostiako Pedagogia fakultateko irakasleak.

Hilketarekin harremana duten gai desberdinak jorratzen ditu Aitxus Inarrak: besteak beste, hiltzailea arau desberdinetan, hiltzeko erak, hilketa eta sexua, hilketa euskal literatura eta gizartean... Gehienetan gizona izaten da hiltzailea eta emakumea biktima. Emakumezkoa familia barnean bakarrik agertzen da hiltzaile ●



GIPUZKOA-DONOSTIA
(1857-1873). DIDIER
PETIT DE MEURVILLE
FERNANDO ALTUBE
 KUTXA FUNDAZIOA

Aurretik egindako beste bi lan interesgarriren jarraipena dugu honakoa. Ardatz garrantzitsu baten inguruan eгина dago: artista atzerritar batek, Didier Petit de Meur-

villek, Donostian emandako hamabost urteak, alegia. Gipuzkoan zehar bidaiatu zuen eta sutsuki interesatu zen bertako paisaje, landaretza, kultura, ohitura, eta abarreatatik. Iruñea, Andoain, Bergara, Oñati, Zarautz, Hondarribia eta beste herri askotako txokoak nolakoak ziren ere erakusten digu.

Atsegin handiz jarrai dai-teke autoreak egin duen marrazkien hilketa eta sailkapena. Ikuspegi desberdinetatik gozatu beharreko ekarpen historikoa ere badu liburuak ●

D I S K O A K



ESAN OZENKI
BILDUMA

ESAN OZENKI

1991tik 1994 bitartean grabaturiko kantuak bildu ditu


bilduma honek. Negu Gorriak, Delirium Tremens, E.H. Sukarra, Su Ta Gar, Etsaiak, Kortatu, Danba, Anestesia, Lin Ton Taun, Les Mecaniciens, Ama Say eta BAP! talde euskaldunen kanta eza-gunak jaso ditu Esan Ozenki disketeak. Sortu zenean egindako apustuari jarraiki, euskaraz aritzen diren taldeak ekarriz.

Negu Gorriak taldearen bi abesti daude, «Gora Herria» eta «Itxoitzen» ●

Hontza
 LIBURUDENDA

Okendo kalea, 4
 Tel. 42 82 89 Faxa: 43 12 56
 20 004 DONOSTIA

PAUSOZ PAUSO



1.000 metro inguru altuerako ertz eta pareta multzo zoragarria, korridore glaziar luzeak eta beste hainbat glaziar izatea dira gailur honen ezaugarririk garrantzitsuenak.

Gailur interesgarria

Goimendi kutsua eta morfologiaren berezitasuna direla eta, Pirinioetako mendi-multzorik erakargarrienetarikoa da Vignemale (3298). Gutxi dira Pirinioetan honek batera azaltzen dituen ezaugarriak dituztenik: 1000 metro inguru altuerako ertz eta pareta multzo zoragarria, korridore glaziar luzeak eta beste hainbat glaziar.

Vignemaleko gandorrek ukondo modukoa egiten du hegoalderantz, Clot de la Hount tontorraren parean, Ossueko glaziarraren goiko lautada inguratuz. Segidan Montferrat mendiraino luzatzen da berriro ere hegoalderantz zuzendu aurretik, Tapou mendi multzo aldera.

Txango nahiko zailak dira Vignemale gailurrera igo-tzen direnak, eskalatu beharrekoak gehienak. Gailurre-

ra igo ordez, Petit Vignemalera (3032) igoz gero, txango errazoagoa topa daiteke, Ossueko urtegitik abiatu eta Baysellanceko aterbearen gainetik igoz dena, alegia.

Gavarnietik Ossueko urtegira daraman errepide txikia dago ezkerreko ibaiertzean. Baysellanceko aterbeko bideak Oulettes d'Ossueko ordeka zeharkatzen du, ipar-mendebalderantz eta segidan iparralderantz igo aurretik. Malda nahiko gogorreko elurtegi batzuk zeharkatu eta Bellevueko harpeen aurretik igoz dena bidea. Hourquette d'Ossueko lepoaren bistan dagoen aterbera heltzen da.

Hourquette d'Ossueko lepora mendebalderantz igo, hegoalderantz gandorretik jarraitu eta higakinetatik barrena, hego-mendebalderantz dagoen gailurre-ira iritsiko gara.

Gaubeko harana iparraldean, Infernu mendebaldean, Facha, Gavarnie, Monte Perdido eta hego ekialdean Taillon ikus daitezke Petit Vignemaletik.

Gaubeko haranetik abiatuta ere igo daiteke Petit Vignemalera. Igoera luzea baino erraza da. Pont d'Espagnetik gora, Gaubeko lakuko bidea hartu. Harana zeharkatu eta Vignemaleren oinean dagoen Oulettesko aterberaino iristen da bidea. Ezkerraldean, markaturiko bidea jarraitu eta Hourquette d'Ossueko lepotik lehen aipatutako ibilbidea jarraitu behar da ■

ESPARRUAK HEDATUZ

Izotz eskalada ikastaroa

Martxoaren lehen bi aste-buruetan, Gavarnie eta Troumoussen izotz eskalada ikastaroa antolatu du Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak. Hastapen eta hobekuntza mailako ikastaroa da eta gutxieneko maila izatea ezinbestekoa da.

Gutxieneko materiala norberak eraman behar du. Honakoa da eraman beharreko derrigorrezko materiala: pioleta eta izo-

tzerako mailua, kranpoiak, kaskoa, arnesa eta bi mosketoi, glaziar igoerarako ekipo egokia eta botak.

Izotz eskalada ikastaroa, diapositiba proiektzioa, Gavarnieko aterbean bi gau, afari eta gosaria eta ikastaroari buruzko informazioa duen karpeta barneratzen ditu ikastaroak. Teoriko eta praktikoa izango da eta Joseba Ugalde eta Juanfer Azkona

izango dira irakasleak. Ikasle kopurua 20koa izango da gehienez ■





HURA OTORDUA!

EDORTA JIMENEZ
Idazlea



Hozkailua beti hutsik

Denbora falta dela eta oso gutxitan sartzen da sukaldean. Ensalada ondo prestatzen duela diote lagunek, eta oilaskoa txilindron erara ere ondo egiten duela dio berak. Ingalaterran, euskal sukaldaritza liburu batekin ikasi zuen gauza hauek egiten.

Ez afaltzeko erabakia hartu du, eta lagunak gonbidatzekotan eguerdian egingo luke. Lagunek deitzekotan afaltzera joango litzateke.


Hozkailua beti hutsik izaten du eta zerbait behar duenean egunean erosten du.

Kontuz aditiboekin!

Euskal Herrian 3.000 aditibo -produktu kimiko- baino gehiago erabiltzen dira elikagaien konposaketan. Egunero jaten ditugu, elikagai eta sendagai zientifiko bidez.

Aditiboen erabilpena arautua dago, baino sustantzia hauen gaineko kontrola ez da behar bezain gogorra, eta urtetan zehar erabili ondoren galerazten da erabilpena. Legearen arabera, aditiboak beste irtenbiderik ez dagoenean, kontsumitzailearentzat arriskurik sortzen ez dutenean, eta nahasbiderik sortu ezin dezaketenetan bakarrik erabiliko dira.

Aditiboak merkaturatu aurretik animaliekin frogak egiten dira. Baina animalientzako ez baina giza-kientzat kaltegarriak diren gaiak daude. Aditibo guztiek eguneko gehiengo dosia dute, baina ez da batera argia, egunean, elikagai desberdin askoren bidez hartzen baititugu aditiboak. Izenaren orde zerbakia agertu ohi da produktuetan ■



Elikagaiak erostean zaila izaten da zein aditibo erabili den edo erabili diren jakitea. Izenaren orde zerbakia bat agertzen da beti. Aditibo bakoitzak zerbakia finkoa du eta zaila da zerbakia zerrenda izatea.

SOINU ETA ARGIZTAPEN EKIPOEN ALOKAIRU ETA ISTALAKUNTZA BIDEO-PROIEKTOREAK-(IKUSENTZUTEKOAK)-PANTAILAK

SOINU - ARGIZTAPENA



irudi Ots


GRABAZIO PLATOA BIDEO-ZINEMA ETA TELEBISTARAKO GRABAKETA PLATO 24 PISTA DIGITALEZKO GRABAKETA ESTUDIOA

IRUDI-OTS S.L. Pol. Industrialdea, Gabiria 15. Edif. BIZKARGI, 8-9. Bentas Auz. 20300-IRUN -Tel (943)631632 Fax (943)631602



BATA ZURIA ERANTZITA

JOXERRA AIZPURUA
Elhuyar-eko kidea



Enpresa euskaldunak

Euskalduntze eta alfabetatze-prozesuak urte batzuk egin ditu jada eta emaitzak norberak bere ikuspuntutik epai baditzake ere, badirudi euskaldungoaren eta alfabetatuen kopuruak gora egin duela. Normalizazio-prozesu horretan Elhuyarrek irakasleen alfabetatzeari ekin zion joan den hamarkadaren hasieran. Matematika, fisika, kimika, natur zientziak eta teknologia izan ziren batez ere landutako alorrak. Denboran zehar eginkizun hau Administrazioaren esku geratzen joan zen eta gaur egun, bai Eusko Jaurlaritzak, baita Nafarroako Gobernuak ere irakasleen alfabetatzea beren eginkizunen artean daukate.

Aldi berean, Elhuyarren beste kezka bat genuen, hauxe hain zuzen erre: *euskara normala izatea nahi badugu, euskara laneko bizkuntza biburtu behar dugu*. Errealitateari so eginenez, garbi zegoen eta dago oraindik, gaztelania eta frantsesa direla nagusi erla-

zio profesional eta ekonomikoaren alorrean.

Hori zela eta, profesio desberdineko pertsonak alfabetatzen hasi ginen, baina gure helburua enpresetan muturra sartzea zen. Hori orain dela bost urte lotu genuen, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren babesean, Antzuolako Balzers-Elay enpresak aipatu bidean abiatzea erabaki zuenean. Bideragarritasun-plan bat egin zen, bertan enpresako sekzio eta langile guztien egoera, euskararen ikuspuntutik aztertu zelarik. Aipatu-plana onartu zenean (enpresako zuzendaritzak eta langileen ordezkariak aho batez onartzea ezinbesteko baldintza izan zen) lan zehatzei ekin zitzaie, hala nola, dokumentazioaren euskaratzea eta langilegoaren euskalduntze eta alfabetatzea. Une honetan, azkeneko fasean gaude, egoeraren segimenduarena hain zuzen ere.

Antzuolan hasitako bideari jarraipena ugari eman diogu eta une honetan ekonomia sektore desberdinetan lanean ari gara. Kutxak, CAF eta Bilboko Ur-Patuzergoak adibide batzuk besterik ez dira. Enpresa bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu, bai pertsonalaren alorrean, baita teknologian ere eta sortzen diren arazoak kasuan kasu konpontzen ditugu.

Honelako plangintza baten aurrean esan gabe doa batetik Administrazio Publiko eta Pribatuaren txertaketa eta bestetik enpresako alderdi desberdinen, hots, zuzendaritza eta langilegoa, sintonia ezinbestekoa dela.

Botikak ere birzikla daitezke

Medikuak agindutako tratamendua bukatu eta etxean gelditzen den botika sobera, kadukaturiko botikak... gainontzeko hondakinekin zaborretara bota ordez, birziklatzera eramatea da hauek guztiek duten irtenbide garrantzitsu eta egokiagoa. Beste honkakinekin batera edozein zabortegitara botaz gero, alor kimiko eta biologikoko kutsadura eragin dezakete.

Botikek tratamendu berezia behar dute. 1978. urtean, botiken arriskuaz ohartarazi zuen Europako Batasuneko Kontseilu Zuzendaritzak eta materia toxiko eta arriskuetsuen zerrendan jarri zituen botikak.

Botiken birziklapena arautua dagoen leku eta herrialdeetan, banatzaileek jasotzen dituzte jendeak farmazietan kutxa berezietan utzi dituen botikak. Lehenik eta behin, sailkaketa egiten dute, oraindik erabil daitezkeenak eta ezin daitezkeenak. Erabiltzeko moduan daudenak, gabezia duten

herrietara bidaltzen dira gehienetan. Sasieta komunitateak, esaterako, 125 kilo botika bidali zituen 1994. urtean Kubara.

Erabili ezin direnek, berri, bi bide jarraitzen dituzte; kartoizko kaxa eta prospektoak birziklatzera bidaltzen dira eta gainontzeko guztia, kontrolpeko erretegitan erre egiten da. Espiraiekin kontu handia izan behar da, erretzean lortzen diren tenperatura altuak direla eta, eztanda egingo bailukete.

Euskal Herrian mota honetako ekimen bakarra dago, Sasieta mankomunitatean. Gainontzeko lekuetan beste hondakin eta zaborrarenekin batera bota eta erretzen dira botikak. Eusko Jaurlaritzak emandako datuen arabera, Euskal Autonomi Elkarte bakoitzak 0,150 kilo botika-hondakin sortzen ditu urtean. Urtero 300etik gora tona botika-hondakin sortzen direla esan nahi du honen ■



Etxeke beste hondakinekin batera edozein zabortegitara botaz gero, kutsadura kimiko eta biologikoa eragin dezakete botika-hondakinek.




Bainuaren onurak

Denbora arazoak direla eta, lasai bainatu ordez dutxa azkar bat hartzea bilakatu da ohizkoena. Gorputzari esnatzen lagundu eta presioz ateratzen den urak zirkulazioa aktibatzen du, efektu estimulatzaileak dauzka dutxak. Dutxa eskoziarrak, zehazki, odolaren ibilbidea azkartu eta gihar eta artikulazioak tonifikatzen ditu. Ur hotz eta beroa aldatzen joatean datza dutxa hau.

Bainu bero tradizionalean, gauzak lasaitasun andia goz hartzen dira. Emaizta lasaigarriak lortu nahi badira, uraren tenperaturak 32 eta 34 gradu bitartekoa izan behar du. Ez da 20 minututik gora egon behar uretan sartuta. Uretan egindako tarteak hamar minutukoa bada, hobe.

Emaizta loarazlea izango duen bainua hartu nahi bada, berriz, urak 36-38 gradu bitartean egon behar du eta 10 eta 20 minutu artean iraungo du. Baina kontuz ibili behar da. Bihotz edota



Esnatu, lokartu, lasaitu... uraren tenperatura hoztu edo berotuz gero, oso desberdinak dira bainu batek gizakiarengan izan ditzakeen efektuak.


biriketan gaitzen bat dutentzat ez da batere onuragarria. Ur beroak tentsioaren berehalako igoera sor dezake.

Askotan erabiltzen diren olio eta gatz usaidunek bainuak duen efektu lasaigarria areagotzen dute. Baina oso desberdina da edozein lekutan edo denda espeziali-

zatueta erostea. Kalitate hobea eta aukera gehiago aurki daiteke denda espezializatueta. Bainurako saltzen dituzten xaboi guztiek ere ez dute balio, osasunerako kaltegarriak izan daitezke eta. Bits asko eraten duten xaboiak maskuri-usi eta azalaren lehorteza sor dezakete. Hau dela eta, era-

ibili bai, baina ez dira gainerabili behar. Bainuan sartu eta azala gorritu dela edo hazkurea nabaritzen bada, segituan atera behar da bainuontzitik, xaboiak sorturiko alergia izango da ziurrenik. Ph neutroa dutenak eta hipoalergenikoak dira xaboi onenak eta gomendagarrienak ■

BESTE PREZIOEKIN EZER IKUSTEKORIK EZ



450 saltegi baino gehiago dituen Estatuko lehen erakunde optikook bakarrik eskaini diezazkizuke betaurreko bildumarik eksklusiboak 2.850 pezetatik aurrera. Eta garrantia guztiekin, jakina.

ZINKUNEGI OPTIKA
 MultiOpticas
 ZERBITZU OPTIKOETAN 1Zba.

Hernani, 4 - DONOSTIA



txisteak



arpa jotzen

ARGIA liburutegia

ARGIAKO TXISTEAK

GIKE AMONARRIZEN ESKUTIK

Azken aleak salgai


Julian Beloki: «Kantuzaletasuna zenbatekoa den ikusi nahi dugu»

Euskadi Irratiak eta ETBk «Kantuz Goraintzi» izeneko kantu lehiaketa antolatu dute. Hemezortzi urtez gorako edonork parte har dezake eta zerrenda batetik aukeratutako hiru kantu grabatu beharko ditu. Finala maiatzaren 5ean egingo da Zornotzako antzokian.

ARGIA. *Noren ideia izan da lehiaketa antolatzea?*

JULIAN BELOKI Aspaldidanik ETBk eta Euskadi Irratiak genuen ideia da.

Abiapuntuko ideia eskutan hartuta, batez ere Euskadi Irratitik landu da lehiaketa nola bideratu. Irratian egingo da, baina bukaera ETBk



«Lehiaketa irratian egingo da, baina bukaera Euskal Telebistak zuzenean eskainiko du». (Argazkia: Alberto Elozegi).

zuzenean eskainiko du. Irratiak eman diezaiokeena baino zabalkunde handiagoa ematen dio telebistaren indarrak. Gero eta gauza gehiagotan beharko genuke elkarren lankidetzatza.

A. Zein da lehiaketaren helburua?

J.B. Jolasbidea izatea nahi genuke. Ahalik eta jende gehien jolasean sarraraztea eta euskal kantagintzaren esparruan gehiegi landu gabeko atal batean jendea agertzea nahi dugu. Kantuzaletasuna zenbaterainokoa den ikusi nahi dugu.

Lehiaketak mugak dauka; *play back*-ak aurrez prestatu behar ditugu eta ez da norberaren tonu egokian abesteko aukerarik izango.

A. Jende asko aurkeztuko dela uste duzue?

J.B. Oraintxe lehenengo egunetan gaude eta ez dago mugimentu handirik. Lehiaketa maiatzaren 5ean bukatzen da eta ordura arte aurkez daiteke jendea. Lehiaketari eman diogun dinamikagatik ez dago jende gehiegi onartzerik ere, asko jota 22 interpretarentzat aukera legoke.

A. Nola egin duzue kanten hautaketa?

J.B. «Goraintzi» saioko produkzio lanetan jarduten den Fran Lasuenekin hitz egin eta kantu zerrenda proposatu zigun. Hiru ataletan banatuta dauden bederatzikantu hautatu genituen.

AINHOA GERRA

IKUSITAKOAK
IKUSITA

Kutre


Informatiboak izaten dira Tb gehien emisioetan ordutegi finkoena izaten duten programak. «Aktualitatearen zitaren» mitoa ere horrela piztu da.

Aldiz, ETB-lean albistegiak programazio-parrilan dantzan ibili izan dira. Eta jakina da, ordutegiak, edukina, tratamendua, soporte tekniko eta entzulegoa ere baldintzatzen duela. Telebista ikustearena ohitura bat da, erreferentzia ordu batzuk ere dituelarik. Ilunabarreko «Gaur egun»-a ez da informazio-iturri erreferentziala inoiz izango, ordutegia bera finkatzen ez dioten bitartean. Iazkoa izan zen, ETBn egin den aposturik egokiena, eta ez ordutegi aldetik bakarrik. Aurten go «Gaur egun» beranduegi hasten da. Bazkaldoru eta gau-erdiaren arteko hutsunea handiegia dela igarri ez dadin, «notizi-aurrerapena» luzatzen digute 21.30ak aldera. Kamara bakarrez, estudio txiki, dekoratu triste eta erredakziotik korrika eta presaka atera duten aurkezlea agertzen da gure etxeko aparailuetan. Telebista programa horren muga tekniko eta espresiboak agerian gelditzen dira, egunero. Hori bai, zer ordutan izango den ez jakiteak sorpresa puntua mantentzen du. Gaitzerdi!

EDORTA ARANA

Denborapasa

Gurutzegrama



EZKER ESKUIN: 1.- Betebeharra. 2.- Piztu. Ogi, hitz elkarketan. 3.- Musika nota. Ukatzeko. Nola hitzaren kontsonanteak. Lehenengoa. 4.- Herri berekoak. 5.- Norekin atzizkia. Saila. 6.- Gaitz mota. Nork, pluralean. 7.- Diosala hitza. Sufriarazten gozaten duen pertsona. 8.- Musika nota. Argi, hitz elkarketan. Gipuzkoako herria. 9.- Andak eramaten dituen. Interjekzioa. 10.- Portu. Trebeak, abilak.

GOITIK BEHERA: 1.- Pl. bilakatzearen ondorioa. 2.- Erabiltzearen egintza. 3.- Herri hizkeran, eta. Nirea. Bostehun eta bat. 4.- Zerbait. Kontsonantea. Bokal bikoitza. 5.- Kezka pizten duen zera. 6.- Iparretarrak. Egur zati erre. 7.- Iparraldean, sendoak. Interjekzioa. 8.- Uranioaren sinbolo kimikoa. Pinu mota. Bizkaiko herria. Huts. 9.- Har ezan! Etsaia. 10.- Mendiko atatak. Euskaraz eta kitto!

Kate hitzak

Letra kopuru desberdineko hitzak ageri zaizkizu ondoan. Helburua zera da, eskuineko taula osatzea, puzzlea bailitzan. Pasa ezazu hitz bakoitza dagokion lekura, kontuan harturik hitzok ezker eskuin eta goitik behera joan daitezkeela.



8 letra

Igaratza
Inguratu
Lanuztea
Ukabilak

7 letra

Ilintia
Kurloia
Zantzua
Zingira

4 letra

Aran
Arin
Aroa
Arra
Atal
Azak
Egin
Eria
Iaio
Ikur
Ilar
Inka

Iran
Iren
Irun
Kaia
Lana
Leka
Nago
Olak
Unai
Ziri
Zura
Zuri

2 letra

Aa
Ab
Ag
Ez
Go
It
Zn
Zz

3 letra

Art
Gin
Ron
Zin


ERANTZUN zenbakidunak bete ondoan, pasa ezazu letra bakoitza dagokion goiko taulako laukira eta grabatuan ageri den pertsonaiaren izena, 1994an Gipuzkoako kirolaririk onenaren izena ageriko zaizu.



1	2	3	4	5								
6	7	8	9	10	11	12	13					

	Poloniako biztanleak		Lokarri sendoa		Toka, ditugu		Larrua
	laki gozoa		Zoladura		Zama		
							5
Hegazti uxatzaile	Nahastura trinkoa	Lohi					
Herriz herriko saltzailea	Zoramenak	3.141596		6			9
							2
Animalia adarduna			Bat		Uhina		
Garata			Borua		50		11
							8
999	Jaurtikigaila				Urania		
Ez arra	Entzun!				Bokala		Har ezak!
			Röntgena		Musika nota		Tona
			Bizk. Ote		Nafarroako herria		Putre
							1
Andrea					... egin, begratu		
Poztasuna					Har ezan!		
							3
							Nitrogenoa
							7
... egin, goitik ari	Alderdi karlista				Zango atal		
							12

Hieroglifikoa



Gipuzkoako herri bat

Aurreko asteko soluzioak

JOKIN
MUGIKA

Gurutzegrama

●	B	●	A	●	K	●	1. FZKER ESKITIN 1. Langaberi. 2. Arantzek 3. Gaitero. 4. U. Irak. 5. Nik. Iñma. 6. Talla.				
G	O	L	D	E	A	K	7. Bb. 7. Ara. Burg. 8. S. Auz. 9. Uta. Iron.				
●	J	●	K	●	G	A	U	Z	K	A	10. Neskaikak
G	O	R	A	Z	A	R	R	E	A	K	GOTIK BEHERA 1. Lajuntasun. 2. Arabar. 3.
●	K	A	T	U	●	R	●	N	O	A	4. Naz. Kiraz. 4. Gotti. Lantak. 5. Maria. 7. A. 6.
B	A	D	U	●	N	I	K	●	A	T	Beaz. Bb. 7. Egokit. 8. Z. T. Rad. 9. D.
●	L	A	K	I	O	A	●	X	●	I	Zurgina. 10. Aklana. K.
M	A	R	I	N	E	L	A	●	D	A	
●	R	R	●	O	●	D	●	D	I	●	
M	I	A	T	Z	A	I	L	E	A	K	
●	A	K	●	O	P	A	R	I	T	U	

Hieroglifikoa:

Ez dagoela bere lekuan

Bosteko ttipiak

- A 1. Biduze. 2. Dina. 3. Luzatu.
- 4. Zuten. 5. Betuna.
- B 1. Alube. 2. Total. 3. Zutabe.
- 4. Baboa. 5. Belek.

Kate hitzak

I	S	T	U	A	P	E	Z		
A	R	O	A	E	E	I	S	U	N
E	U	S	K	A	D	I	A	R	T
T	N	T	R	A	U	S	K	I	L
Z	Z	I	A	N	E	E	O		
Z	U	K	U	O	R	R	I		
B	H	A	A	R	R	A	N		
U	S	A	R	U	M	E	A	D	O
K	A	I	G	A	N	I	B	E	T
A	I	T	A	K	L	A	I	A	
A	Z	A	K	X	A	I	A		

Bosteko ttipiak

1. Adiskide miña
2. Gizaki ar heldu
3. Luzetasunaren neurria
4. Zein pertsonaren
5. Fruitu tropikala

	1		3		5
1		2		4	
	2				
	3				
	4				
	5				

1. Agoten auzoa
2. Nafarroako herria
3. Gazi bihurtu
4. Hoditxo
5. Pl. Ortzia

Zenbaki bakoitzeko hitz bat eta bera

	1		3		5
1		2		4	
	2				
	3				
	4				
	5				


Euskara, naziogintzarako oinarri

INTSUMISIOAREN aldeko borroka oinarritzat hartuz, zera baieztatzen dugu «Oldartzen» txostenaren 154. puntu-an: «Argi ikusten da herritarrek gertutik bizi duten gai baten inguruan herri dinamika aberatsa, zabala eta gogorra bideratzeko baldintza sozialak badaudela Euskal Herrian».

Eta nola ez, euskara da, hain zuzen, gai horietariko bat, ez baitago euskararik gabeko Euskal Herririk. Honela dio «Oldartzen» txostenaren 155. puntuak: «Euskara inguruan, urrats berri interesgarriak eman dira azken urteotan. Hor daude, besteak beste, Euskaldunon Egunkaria, UEMA, Euskara Elkarteak, euskal herri aldizkariak, bertsolaritzaren susperraldia... Era berean, azpimarragarriak eta guztiz esanguratsuak dira ikastolen aldeko mobilizazioak, Korrika eta horrelako ekimenak. Halere beharrezkotzat jotzen dugu une honetan euskararen eremuan dagoen desideologiazioa eta zurikeriari aurre egitea euskararen aldeko presio soziala berpizteko».

EZ dugu esan nahi, beraz, herri honek bere etorkizuna euskaldunari uko egin dionik. Herritarren euskararen jarrera azteru duten inkestek, irakaskuntzako euskal eredu bilakaerak eta ezagutza zein erabilerari buruzko estatistika eta neurketek argi azaltzen dute euskal gizartearen zati nagusiak Euskal Herri euskaldunaren apostua egin duela, indar espainolen deklarazio sutsuek komunikabide espainoletan duten oihartzunak besterik isladatzen saiatzen diren arren.

Baina une honetan, Iparraldean, Nafarroan eta EAEn duela hamar urte pentsa ezin zitezkeen euskararen aurkako eraso gogorrak indartu direnean, Toubon Legea Estatu frantsesean, Nafarroako sententziak edota UA, PP eta PSOE-ren jarrerak Araban, milaka boto batzuren izenean alderdi espainol eta frantsesak herri euskaldun izateko eta euskara



JOSEBA ALVAREZ

HBko Euskara arduraduna

bizitzeko dugun eskubidea erasotzen dutenean, ez dago jarrera suntsizale eta antidemokratiko hauen aurkako benetako erantzun nazionalik. Non dago, bada, freinoa? Nork oztokatzen ditu euskararen aldeko urrats berri eta indartsuak?

INDAR espainol eta frantsesen eraso alde batera utzita, bi dira tesi nagusiak. Bata Mari Carmen Garmendiak defendatzen duena: gaurko marko legalak ematen dituen aukerak ez dira betetzen, eta beraz, jokaleku hau onartu beharra dago. Eta bestea, ezker abertzalearena: herri honek neurri eraginkorrak nahi ditu, baina boteretik freinoa jartzen da.

Alde batetik, beraz, agintean nagusi den indar euskaldunaren jokabidea dago. PNVko zuzendaritzak ETA eta ezker abertzalearen kontra bere milaka sinpatizante mobilizatzeko gai izan den bitartean ez ditu inoiz euskararen alde kaleratu bere baseak, eta gizarte agente sozialek egin nahi izan dituztenean, freinoa jarri die bere orbitako euskaltzaleei, mobilizazio horiek euskararen alde baino instituzioen kontrakoak direla adieraziz. Hor dago freno eta kate nagusia.

Baina ardura guztia ez da PNVrena. Herri mugimenduaren arduradunen artean ausardia falta nabari da, desideologiazioa, menpekotasuna eta auto-konfidantzaren faltaren ondorioz. Desideologiazioa diogu, mapa politikoaren zatiketaren morroi azaltzen direlako askotan herri ekimenaren arduradunak. Euskararen aldeko borrokaren autonomiaz hitzegiten dute, baina PNV edo instituzioek sala ditzaketen edo hauek inplika ezin dituzten ekimenak baztertzen dituzte, euskararen ikuspuntutik ekimen horiek beharrezkoak diren arren. Batasunaz hitzegiten dute, baina batasunaren izenean, euskararen aldeko erreibindikazioak minimoen azpitik kokatzen dituzte, despolitizatzen dituzte. Elkarlana, kontzepzio instituzionalera mugatzen dute, elkarlana instituzioekin egiten dena dela pentsatuz eta ez euskara mugimendu osoaren artekoea. Eta azkenik, herri ekimenaren menpekotasun ekonomikoak eragindako kaltea dago. Nola kritikatu eta mobilizatu dirua eman behar dizunaren kontra?

GUZTI horren ondorioz, euskararen aldeko gizarte ekimenaren zuzendaritzan daudenengan autokonfiantza falta indartu da, euskararen aldeko presio soziala ahuldu da eta ez dago egungo egoerak eskatzen duen erantzun sozialak bideratzerik, Arazoa ez datza, beraz, euskal herritarren borondatearengan, hauek zuzentzen dituzten ordezkari politiko eta sozial gehienengan baizik. Euskararen aldeko borrokaren autonomiaren izenean, euskararen normalkuntzak eskatzen dituen minimoen inguruan gogor mobilizatu eta lan egin beharra dago, eta ezker abertzaleak edota instituzioek eta bertan nagusi diren indarrek minimo horiek errespetaetzen ez dituztenean salatuz eta betetzen dituztenean txalotuz. Hori da sinesgarritasuna irabazteko eta Euskal Herri euskalduna eskuratzeko bide bakarra.

Euskal Herriko Egunkaria

Zure Egunkaria



EUSKALDUNIA Egunkaria

TXORIA, INOIZ BAINO GORAGO

